

**MARIANO IZETA**  
**dirua galgarri**  
**1962**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:  
<http://klasikoak.armiarma.com>  
*Dirua galgarri*, Mariano Izeta. Ausoa, 1962.  
Bertsio informatiko honen egilea:  
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## dirua galgarri 1962

### LEEN PEREDIKIA

Behar bada galdeginen du irakurleen batek: «Leen peredikia» hitz horiek zer dira?

Ziberotarren Pastural bat edo *Charivariren* bat irakur balu, jakinen zuen hitz horiek «Aurreko Hitza» adiarazten dutela.

Eta berandu gabe, goazen polizia-nobela hunen egilearekin.

Mariano Izeta Elizalde jaun gaztea 1915 urteko uztailaren 14'garren egunean sortu zen Elizondoko «Mutilenea»n, eta hiri hortan bizi da erloju-denda baten jabe.

Bere eskolak herrian berean egin zituen, eta *Zeruko Argian* eta Baionako *Herria* astekarian irakurgai pollitak argitaratu izan ditu jadaneko.

Aita Zarauztarra du gazte gaztedanik Elizondon kokatua, eta ama berriz Elizondoarra.

Eskuaraz leenbiziko liburua ote da hau Baztanen? Polizia-nobela bezala bai, leena da, eta irakurleak ikusiko duen bezala, interes haundienarekin segitzen zaio asmakizunaren korapilloari. Eskuara ere herrikoa erabiltzen du eta erreza Baztandar izkiriazaileak.

Horko bereko izkuntzan geiena, ez oso osoan hala ere, zenbait aldiz ezpaitzaio jarraitzen egilea aktiboen eta pasiboen bereizkuntzari (gizonek-gizonak), Baztanen bezala.

Beste aldetik ere erran behar da, Baztanen usatzen dela, asko tokitan bezala, hitzen akabaillan, *a-e* bokalen aldakuntza, *i-u* bokalen ondotik doazilarik.

Bidasotar ez direnek ere, uste dugu aise irakurriko dutela nobela pollit hau, den oiturarik ttipiena irakurtzeko baldin badute.

Tokiko zenbeit hitz ez-ezagunen argitzeko eratzeki dion iztegiñoa, laguntza handitakoa izan ditake.

Polizia-nobelaz kanpo, leenago ere agertu izan dira Baztandarren euskal liburuak; eta ospe haundiko Axular hura kontatu gabe (Urdazubi bere sortherria Baztango barrutiaren barrenean baitago eta Axularren ama ere Azpilkuetakoa zen).

Elizondoko «Datugaraia»n bizitu zen Bruno Echenique jakintsu hura eta Baztango eskuaraz izkiriatu ere Bonaparteren laguntzaile gorenetakoa bat bezala. Ebanjelioa, Apokalipsa, «El cantar de los cantares» eta beste halako itzulikatu zituen Elizondoko eskuararat.

Prinzipe berak dionez, iñork etzion Echeniquek bezain zeatzki gomendatzen ziozkan langaiak bururatu. Eta are geiago estimatzen zuen gure izkiriazailea, ainbeste eskale nardagarrien artean, beretako nioiz ere etziolakotz deusik eskatu.

Franzisko Lapitze idazlari ezaguna ere sortzez Arizkungoa zen; eta bere liburu «Bi saindu heskualdunen bizia», liburu ernagarri eta edertzat jotzen du Lafittek laudorio handienen artean.

Baztandarra zen Francisco de Elizondo Aita kaputxinoa ere, besteen artean «Lore usaindun mamitsuak» liburua izkiriatu zuena.

Orobat, Amayurko erretore izan zen Cruz Goyeneche jaunak ere eskuaraz apainki idatzi zuen eta soilik aipatuko dugu Martin de Azpilkueta, XVI garren mendeko doktoarearen bizitza labur bat; Eluetearra zen. (Zaarrek beti Eluete erraten zuten, eta ez Elvete oraikoek bezala).

Iruritan aunitz urtez bizitua, aldizkari askotan izkiriatu zuen ere Paulo Fermin Irigaray «Larreko», sendakin ezaguna izan zenak.

Eta erdi Lekaroztarra etzena Tapia-Perurena olerkari fin eta goren maillako hura, Baztango eskuara leunean ainbeste idatzi zuena? 1930 eta 1933 urtetako

Eusko-olerkiak direlako bildumetan ikus ditazke «Baztango mendiak», «Txori mindua», «Lore bikaiña», «Orein zuria»... daritzaten poesia ederrak; batzuk Ulhand eta beste aleman neurtizlarietatik zuzen zuzen itzulikatuak.

Bizien artean hor dugu Zigan, Xabier Lazcoz apez olerkari eta erdal izkirianta, Elizondoko semea; oraintxe aipatu 1932 urteko olerki bilduman ikus ditazke bere euskal bertso sortak.

Eta Arizkunen ere orai argitara ematen dute aipagarri den, erdia eskuaraz dagon *Elkartasuna* eliz-orri pollita.

Batzuk usteko zuten bezain agor eta antzu ezta beraz izan Baztango lur eder hau, euskara idatziarendako.

Eta oraindik *Aita Donosti* zena ere aipa dezakegu, aur-aurretik Baztanen bizitua eta bere naiez Lekarotza ehorztera ekarria; ainbeste euskal kanta eta ipuin eder bere Baztan maitean bildu eta argitara eman zituen musikalaria haundia.

Halaber gauza beretsua erran dezakegu Arrigarai aita kaputxinoaz, edadura haundiko gramatikak Lekarotzen egin baizituen eta Baztango eskuararen kutsurik haundiena dutenak.

Joan den mendean ere, Joan martin Hiribarren eta Joan Battitt Elissamburu olerkarien euskara ederrak Baztango ziren alde batetik; Hiribarrenen ama Erratzuarra baizen *Dolarea* deitua eta Yoana Irazabal Zugamurdiarra berriz, Elissamburu euskal poeta haundiaren ama.

Gure errikide Izeta, beste horiek bezala, asitako bideari jarraikiko zaiola gero ere, igurikatzen dugu bihotz bihotzetik.

**A Irigaray**  
Euskaltzaindikoa

Abenduko egun batean zen; atsaldeko seiak, eta izarrak ageri ziran zeruan; egunik laburretan gaude eta orduko illun illundua zen.

Iri bazterrean bi gizon izkutuan eta noizean bein kirikeka bide aldera; ezpairik gabe norbaiten zai zauden.

—Oraindik eztuk ageri Mainker ori, zion batek, bietan zarrena eta bere aurpegi beltz artan zitalkeria erakusten zuela.

—Badator, badator; ortxe dago, erran zuen bertze gizonak, pizti baten antzeko gazte mee bat, begi bixi batzuekin.

—Gabon... agur egin zuen etorri berriak.

—Bai zuri ere. Noiz-nai ordue zen, berantetsiek ginauden, erantzun zioten.

—Egia da, bai; bañan lenago enitzen etortzen aal, ofizinan lan aunitz zuten eta kapataz guziek antxen egon gara geren kontuek egiten orain arte. Langileak beren soldata artu bearra dute, eta leenik gauzak bear ziren ongi antolatu.

—Ekarri al dute dirua? galdegin zuen zarrenak, izen-goitiz «Beltza» zeritzana.

—Bai, ikusi dut nola ekarri duten eta Jean-Pierre Yaunak eta bere illoba Franzisek nola kontatzen zuten, ok baitira diruzain eta idazkari. Baita oartu naiz ere dirua larruzko boltsa batean sartu dutela, eta aditu dut nola Jean Pierrek erraten zion illobari: «Diru au sartzazu burni-kutxan; emen badira lau milloi eta eztitugu nola-nai utzi bear».

Beltzak irri maltzur batekin entzuten zion eta bertze bieri zorrozki begiratu ta erran zaben:

—Aditu zazue biek. Diru ori gureganatu bear dugu; bañan ortarako geren buruek arrixketu bear... Aizu, Mainkerra... Zer ordu izango da egokiena yokoa egiteko?

—Nik uste dut amekak aldera izanen dela ordurik oberena. Nik badakit ongi etxe orren berri. Beitien dauzkate ofizinak eta lenbiziko bizitzan Jean Pierre Yauna bizi da; bañan gaur eztugu orren bildurrik. Badakit osaba-illobak goan bearrak direla zinemara beren emazteekin eta ordu atan iñor eztela izanen etxean. Aise sartuko gara leio ttipi batetik eta bear den bezela eginen dugu gure lana. Ez bildurrik izan...

—Aditu duk, Pizti —erran zion Beltzak oneri—. Erne egon adi eta prestatzik lanabesak, burni-kutxa ori idekitzeko.

—Gertu naukazu, nagusi. Badakizu lan oietarako ez dudala parerik.

—Ongi dago. Ori gero ikusiko dugu. Orain gauzak buruekin egin bear ditugu. Leenik yan dezagun zerbait eta edan erre...; bañan kontuz, Pizti, edariekin. Ik aski duk baso bat eta guk, gutti geiago. Badakizue gizon ordiak eztuela deusetarako balio. Gañera, gaurko lana ezta nolanaikoa. Burue ongi eta zangoak zauli bear ditugu. Sar gaitezen bada, gure ostatura...

Urbil artan bazen ostatu zar bat; leku zikiña eta illuna, an biltzen ziran yendajeak bezala. Exeri ziren zoko batean eta afaldu zuten.

—Oraindik bederatziek —ziotsan Piztiak kezkatu.

—Etzaitela larritu —erran zion Mainkerrak—. Ameketako an izango gara, ezpaitago urrun etxe ori; eta gañera gaurko eguraldiakin egoten aal gara lasai. Ezta iñor ageri karriketari, izan ere gau ontan. A zer orma eginen duen!...

Mainkerrak oraiñik bazuen zerbait galdetu bearra.

—Gure lana ongi ateratzen bada, nola berexi bear ditugu irabaziak?

Beltzak orduan:

—Lau millonetatik, bi neretako eta zuendako milloi bana. Badakizue ni naizela buruzagi. Zer iduritzen zaizue?

—Ez al zaizu ori soberaxko zuretako?

Yardetsi zion Mainkerrak:

—Zu aitzindari izanagatik, nor da gaurko lan onen buru eta nork dakizki, nik bezain ongi, etxe orren zokoak? Ortaz bada, zuek aski duzue milloi bana eta bertze biek neretako.

Beltzak zimurtu zuen kopeta, etzuen bada uste gizon erbal ura ausartuko zela bere aurka deus erratera, eta egon zen arei begira ixtanpatez itzik erran gabe. Ezagun zuen etzitzaiola ongi goan Mainkerraren erantzuna; bañan etsi etsian bearko zuen aren erabakia baieztu.

—Goazen —erran zuen azkenean Beltzak—. Ordua da. Egin dezagun zuk erran duzuna eta lenbailen iritxi gaitezen etxe ortara. Lanpide oietan oitua nago eta finezien yokatu zaite, Mainkerra. Nik badakit gero gizon iruzurtia nola ezi. Nerekin ezta yostetik.

Abiatu ziren iru gaizkileak poliki poliki, Mainkerra zutela bide erakustale.

Zeruan izarrak dirdiratzten zuten beñere ez bezela, eta orduentxen berean amekak yo zuten ezkil-dorre batean.

## —II—

Trankil aski zauden osaba-illobak bere lanetan, ia akitu urren. Egun artan bazuten non yosta, lau eun langileendako aste guziko soldata prestatzen. Azkenean, zortziek aldera, ontzat eman zioten beren lanari.

—Banoaie laisterka etxera —erran zuen illobak—. Gaugerero nere emaztea berantetsie egonen da; bañan leenik eskuek garbitu bear ditut.

Franzis etxera abian zen eta azken agurra egin baño len, erran zion osabari:

—Osaba, afal ondoan etorriko naiz emazteakin. Gero zinemara amar t'erdietako iritxi gaitezen. An eman bear duten film ori ez genduke galdu bear...

Franzis atera zen ofizinatik etxeruntz bere Peugeot txikiarekin. Karriketan etzen iñor ageri. Gau artan yendea berokire bildu izanen zen, ortarako ohea baizagon.

Jean Pierre, ofizinako atea etxi ondoren, igan zen bere bizitokira. Bere emazte Elizabet senarren zai zagon afaltzeko, eta au etxean sartu orduko, xamurki agurtu zuen. Andre xaloa eta maitagarria zen Jean Pierren emaztea. Elkarren antzekoak, biek zoriontsu bizi ziren.

—Lanean orain arte? —galdegin zion.

—Bai eta ez guti. Gaur aunitz nekatu naiz. Buruko min pixka bat ere badut eta eztut batera afaltzeko gogorik... Gero etorriko dira Franzis eta Mayi zinemara goateko asmoakin; bañan obe dugu emen egoten bagara su ondoan... Berek nai badute, goan daitzile.

—Guarko eguraldiakin ergelkerie da etxetik ateratzea —zion Elizabetek—. Egon gaitezen emen berokien goxoki goxoki ele atsegingarrietan; eta orai afal dezagun.

—Orixe... Nik beñipein kamamile artuko dut; eztut bertzerik nai.

Afal ondoan irri solas batzuk ere egin zituzten, beti bazuten yostatzeko gogoa senar-emazte ok, naiz biek ere adinean sartuek izanik. Amarrak aldera nabaitu zuten atea yoka eta segidoan Elizabet yautsi zen edekitzera.

—Ongi etorri, ene maiteak —agurtu zituen bere illobak—. Zatozte goitire eta kentzizue abriguak. Sukaldean egonen gara goxo goxo. Osabak eztu etxetik ateratzeko gogorik eta naiago du su ondoan egon.

—Bañan... ez al dugu zinera goan bear? —erran zuen Franzisek.

—Ez, ez; gaur ez beñipein; eztago gaua or barna ibiltzeko.

—Bai, bai; arrazoin duzu, izeba, —erran zuen Mayik—. Nik ere ez nuen gogo aundirik; bañan Franziseri sartu zaio kasko ortan zinemara goan bear ginuela eta berari gustua egiteagatik atera naiz.

Ongi dago, ongi. Egin dezadan bada, zuek nai duzutena —yardetsi zuen Franzisek.

Kendu zituzten beren abrigoak eta igan ziren goitire.

—Gabon, osaba, —agur egin zuten bi illobak.

—Bai zuei ere. Exeri zaitzete emen, su ondoan —erran zaben maiteki osabak—. Otz al dago kanpo ortan?

—Bai, barnean egoteko ohea dago —erran zuen Mayik.

—Artuko duzue kafea, eta gero ariko gara musean, nai buduzue, gazteak zarren kontra —erran zuen izebak uroski—. Gañera, badugu astia pileka. Zer ordu da?

Franzisek begiratu zuen esku-muturrera eta oartu zen erlojua falta zuela.

—A zer burue...! Erlojua atzendu zait beiti. Eskuek garbitzeko kendu nuen eta diruen kartera gañean utzi dut, mai gañean.

—Bañan ez al duzu diru-kutxan sartu kartera? —erran zion osabak.

—Ez, ez. Atzendu zait; bañan gero etxerakoan sartuko dut. Orain yosta gaitezen musean.

Ala egin zuten eta baita ere gazteak aisa irabazi. Etzen arritzekoa, Franzis yokalari porrokatua baizen eta kartetan aunitz zakiena. Bear bada lanean etzuen aunitzik egiñen; bañan yokoko gaietan oberenetakoa zen.

Orrela pasatu zuten ordu bat egonaldi eder batean eta oberenean zaudelarik, nabaitu zuten asots aundi bat beitién. Leio baten kristelak norbaitek pusketu zituen eta denbora berean norbaitzuk laisterka somatu zituzten.

—Nor dabile or? —oiu egin zuen Jean Pierrek—. Goan zaite agudo, Franzis.

Illoba laisterka yautsi zen ofizinara; argia piztu zuen eta angoa ikusi eta ikaratu zen: leioa zabalik, burni-kutxa ere idekia eta ango diru guzia eramana. Mututua gelditu zen lenbizien; bañan segidoan ernatu ta asi zen oiuka:

—Lapurrak! Lapurrak.

Goitikoak izitu ziren; andreak karraxika eta osaba ere oiuka asi ziren.

Laisterka etorri ziren goitikoak eta ikusi zuten zorigaitzoko gertakizun ura.

—Urdeak! —erran zuen osabak—. Ebatsi dakute ditu guzia!...

Telefonia artu ta bazoaien mintzatzeraz poliziak etorri zitezen; bañan oartu ziren telefonuen ariak ere autsi zituztela. Madarikuak!

—Goan zaite polizietara eta etorri daitzile lenbailen. Gu ez gara emendik mugituko eta eztugu deus ukituko.

Illoba prestatu zen, abrido artu eta bere Peugeotekin goan zen egiñaletan polizietara.

Bizkitertian an geldituziren,zer egin etzakitela, osaba bi emaztekiekin. Uste baño geiago berandutu zuen illobak; bañan azkenean agertu zen bi poliziek: Claudet Yauna bere morroiakin.

—Zer gertatu da emen? —galdegin zuen an sartu bezain laister.

—Begira, yauna, —erantzun zion Piarresek—. Ebatsi dakute emen ginuen diru guzie, eraman dituzte bi larruzko kartera. Batean diru gutti zen, 500 franko berritakoak; bañan bertzean baziren lau milloi; eta erloju bat ere eraman dute, diruarekin batean.

—Leenik begiraldi bat eman bear dut emen. Ikusten dutanez, lapurrak leio ortatik sartu dira eta, iges egin zutenean, kristelak autsi. Bai... Una emen lapurren oñazkak.

Atera zuen lupa aundi bat eta begiratu zituen ongi. Gero bertze zoko guziek ere, ia beatzen señalerik agertzen zen; bañan alferrik. Ezpairik gabe lapurrek egin zuten beren txarkeria guantiek. Sudurre zimurtu zuen Claudet yaunak, erraten zuela:

—Ebaskoa egin dutenak badakite ongi beren lanekoxikanak. Telefonoko ariek ere autsi dituzte eta ezta señalerik ageri iñon.

Polizi morroiak atera zituen erretratoak eta ango gauz guziak ongi begiratu ondoren, erabaki zuten biaramoneko uztea egin bear ziren lanak.

—Goan zaitezte orain goatzera, eta biar goizeko amarretan zuen zai egonen naiz komisarian. An xuxenduko ditugu gauzak. Orai eman zaizkidazu etxe onen aitzindarien izenak.

Piarresek eman zizkion beren buruzagien izenak. Gizajoa dardaraka zagon eta emaztekiek izituak. Franzis berriz, ezin egonez bezala, an zebillen batetik bertzera.

—Eta orai zer egin bear dugu? —erran zuen Piarresek—. Biar ginuen langileei yornala ordaintzeko eguna. Zer zorigaitza!

—Etzaitzela ikaratu. Zuen Bazkunak diru aunitz du eta ezta aisa errekaratuko. Gañera, guk arrapatuko ditugu lapurrek eta dirua ere bai. Egon lasai... Biar amarrak arte... Eta gabon igaro.

Poliziek goan ziren eta oso naigabeturik bertzeak eta izialdure ezurretaraño sartue zutela, oeratu ziren. Goizeko ordu bata bazen Franzis eta Mayi etxeratu orduko. Lenago ain pozik zirenak, etxetik atera zirenean, orain naigabea eta tristura ziren etaz nausitu. Etzuten lo aundirik egin denak ere. Goizeko zazpietako yaiki ziren eta ametsa bezala iduritzen zitzaieten bart-arratseko gertakizune; bañan zorigaitzez egia zen eta egia garratza. Piarresek bada, etzuen bear olako naigabea. Gaixo Piarres...!

### —III—

Ebasko orren berrie zabaldu zen iri guzian. Radiok eta egunkariak yakin-arazi zuten yendeari bart-arratseko gertaera. Komisarian erne zauden amarrateko. Orduko gaztigitu zabezten Soziedadeko buruzagiei; eta xuxen xuxen an bildu ziren denak. Nagusi kontuko yaun ok berrie artu zutenian, kolera ederrean yarri ziren. Etzen arritzekoa. Piarres eta Franzis ordu ortarako ere etorri ziren. Claudet Yauna arrera on bat egin zaben.

—Egun on, yaunak. Sar zaitetzte eta exeri lasai. Emen egote ona dago; kanpo ortan baño obea. Bart-arratsean orma aundia egin du.

—Bai, izigarria —erantzun zion Rene yauna denen buruzagiak—. Aurten negu bortitza dugu; baño lau milloi oiek ebatsi dituenak eztu otz aunitzik pasatuko; negu ederra idurituko zaio.

—Yaunak, —asi zen Claudet—. Orain asi bear dugu, zuen izenak artu eta bart-arratseko gertaerak nola izandu ziren izkiribuan paratzen. Asi gaitezen bada. Leenik Soziedadearen izena.

—Société Leblanc-Chatonet.

—Zein da buruzagi?

—Ni naiz, eta nere izena Rene Leblanc. Nere ondokoa, Louis Chatonet; eta bertzea, Raimond Etxemendi. Idazlari, Franzis Vivier; eta diruzaina, Jean Pierre Vivier.

—Ongi dago —erran zuen Claudet yaunak, eta paperean ezarri zituen denen izenak—. Soziedadeko etxean nor bizi da?

—Jean Pierre diruzaina. Beitien ditugu ofizinak, eta lenbiziko bizitzan bizitokia.

—Zenbat diru ebatsi dute, Jean Pierre?

—Diru-kutxan bi larruzko kartera ziren. Batian 500 franko berrietakoak eta bertzean lau milloi; eta dena eraman dute. Gañera, nere illoban erlojua mai gañetik.

—Bertzerik eztute eraman?

—Ez, bertzerik ez.

—Billeteen numeroak artu ziñuzten?

—500 frankoenak bai, emen ditugu; baño lau milloienak ez, au baiginuen gaur eman bearra langilei.

—Ekartzu numero oiek, paperean artu ditzadan.

—Erlojua zer markakoa eta zer gisakoa zen?

—Longines; esku-muturretakoa; altzairuzkoa eta ubelakin.

—Nondik erosie zen?

—Friedrich'en relojeritik; nere aitak erosie, orai dela amar urte.

—Emaidazu orren zuzenbidea.

Eman zizkioten bear ziren denak, eta Claudet yaunak artu zituen paperean.

—Orain bertze ikustaldi bat egin bear genduke zuen etxean an diren oñazkak ongi begiratzeko.

Au erraten zuen bitartean, zigarroak atera zituen sakeletik eta eskeñi zaben denei. Gero yarraitu zuen:

—Nere iritziz, lapurren artean bazen norbait etxe orren berri ongi zakiena.

Kapataz edo langileen artean ez al da kartzeletan ibili den yenderik?

—Ez; gure yende guziek banaka banaka aztertuak eta esaminatuak izan dira, erran zuen Rene yaunak.

—Bai, ori bai; baño egin bear dabegu begiraldi on bat denei, kontuen artuz zer bizi-modu daramaten. Zer lanetan ari zerate orain?

—Amar kilometroko bide berri bat egiten ari gara. Baditugu lau eun langile eta orain arte lanak ongi doazi. Traktoreak eta mota guzietako makinak baditugu eta gizont rebeak ere oietan ibiltzeko. Gure yendea ikusi nai baduzu, goan ziate lau etan ofizinara; an asten aal zara zure lanean.

—Barkatu, yauna; baño yakinen gañean egon zaitetzten, erran bear dazuet



gure lanak bart-arratsean asi gintuela. Zuek lo ziñatenean, gure gizonak or barna zabiltzan batera eta bertzera lapurren billa. Gure lana ori da, eta emen gaude zueri serbitzeko; eta orai goazen zuen extra.

Atera ziren denak komisariatik alderdi artara bi automobiletan; batean iru buruzagiak polizia batekin, eta Franzisen Peugeotean au, bere osaba eta Claudet Yauna. Bidean zoazilerik, polizia nagusiak, beti umore onakin irriparez, erran zian Piarresi:

—Pasatu al zaizu atzoko izialdure?

—Ez yauna, ez. Oraindik ikaratua nago. Lapurrek arrapatu arte ez naiz trankil egonen.

—Ez bildurrik izan. Guk antolatuko dugu zuen afera.

—Milesker. Zure yakitatean uste osoa dugu eta itxaropena. Zure eskuetan uzten dugu gure afera.

Franzisek etzuen itzik erran bide guzian; bere gogoeta eta pentsamentuetan lo.

Iritxi ziren etxera eta atean zai zagon Elizabet, ongi etorria emateko. Sartu ziren ofizinan eta an aritu ziren lapurren oñazkak negurtzen eta zoko guziek begiratzen. Polizia nagusiak erran zuen:

—Gaztigitu zagun lantegira ia langile guziek or diren edo norbaitek uts egin duen.

Orduko, telefonoen ariek antolatu zituzten eta kapatazen buruzagiakin mintzatu ziren. Onek listak ikusi ta ondoan, erran zaben goiz artan Mainkerra kapataza eta bertze sei langileek uts egin zutela.

—Gaur atsaldean ezpadira etortzen beren soldata artzera, gogoan artuko ditugu oien izenak.

—Gaur egin duen ormakin, bear bada, etxean gelditu izanen dira katarro pixken batekin edo... —erran zuen Renek.

Amekak aldera agertu zen Elizabet, edari goxo eta pasta batzuekin an ziren yaun guziek ameketakoa egin zezaten.

—Milesker, etxeko-andre, —erran zioten denak—. Edan dezagun naigabeak alde batera utzi-ta...

—Yaunak, bagoaz —erran zuen Claudetek—. Emengoa ikusi dugu eta, bear bada, gure poliziek izango dute berrin bat eman bearra. Agur, atsalde arte!

—Nerekin yoanen zerate —erran zaben Franzisek polizieri—. Nere Peugeotekin ixtanpatez iritxiko gara zuen etxera.

Bidean solasean asi ziren eta Claudetek erran zion Franziseri:

—Aizu, gazte; orain egin genezake zure erlojuen afera. Esaiguzu non dagon Friedrichen etxea, eta goan gaitezen arat.

Iritxi ziren etxe artara eta arkitu zuten ango nagusia bere lanean ari zala.

—Egun on —agurtu zuten.

—Bai zuei ere —erantzun zaben.

—Emen eldu gara gauz bat xuxendu naiez. Yakinen gañean egonen zara nola ebasko aundi bat egina duten Leblancen ofizinetan...

—Bai, yauna, bai. Irakurri dut «Journal'ean».

—Oroitzen zara, —erran zion Franzisek— nere Longines artaz?

—Bai, oroitzen naiz. Ezta ba denbora asko antolatu nuela, Gañera nik saldua zen erloju ori zure aita zanari.

—Bai. Bada erloju ori ere ebatsi datate diruekin batean.

—Gogoan artuko dut eta gatzigatuko ere bertze erlojeruei beren eskuetan erortzen balitzake, parte eman zezaten polizietara. Nik alegiñak egingo ditut. Badakizute lapurren etsai porrokatua naizela. Gogoan jaso eta agindu nai duzutena.

—Eskerrik asko. Maiz etorriko naiz zu ikustera, eta agur!

Atera ziren Friedrichen etxetik eta, bertzetan denborik galdeu gabe, goan ziren komisariara. Claudet yauna bere ofizinara iritxi bezain laister, Franzis abiatu zen bere lantokira. An gauzak antolatu naiez zabilen.

Soziedadeak diru aunitz izanagatik, bazuen lanik aski.

—Goan zaite Bankora eta atera zazu atsaldeko bear dugun dirua —agindu zion Rene yaunak Jean Pierreri, txeke bat prestatzen zuen bitartean.

Orduentxe agertu zen Franzis, eta Renek erran zion:

—Emen diot zure osabari txekea dirua Bankotik atera dezan, eta lagujndu iozu. Goan zaitzte biek; bañan etorri lenbailen.

Atera ziren osaba-illobak auto txikiakin. Bazirudin Jean Pierre trankildu zela pixken bat, eta onela zion:

—Guk eztugu dena, bear den bezela aitortu. Ez badugu erran lau milloiak eta erlojua mai gañean utzi gintuela. diru-kutxan sartu gabe, uts aundi bat egin dugu, zeren lapur oiek erori ez-geroz agertuko da gure obena, esango baitute mai gañetik artu zituztela boltsa eta erlojua eta diru-kutxatik bertzea.

—Bañan zuri iduritzen zaizu arrapatuko dituztela lapur oiek? Nik eztut uste, Geinetan gertatzen dena gertatuko da orain ere. Burrunba eta zalaparta franko eginen dute, eta azkenean gure Leblanc dirurik gabe eta ni erlojue falta... Etzazule kezkarik izan. Gure lana egin dezagun orain eta utzi alde batera naigabeak. Gu orrengatik berdin biziko gara.

—Zu beti izanen zara azolagabe bat; bañan ni gai auetan finezien yokatzen naiz. Badakizu nik zin egin nuela nere lanetan egiñalak eginen nituela Soziedadean alde.

—Bai, nik ere egiten ditut, bañan orrengatik ez naiz larritzen.

—Iritxi gara —erran zuen Jean Pierrek—. Itxoin pixka bat...

Dirua artu eta bereala itzuli ziren etxera. Goiz artan orma aundia bazen; bañan gure gizonak etzuten batere sumatzen. Egiten zituzten lastekakin ongi kendu zuten otza beren gañetik.

Ofizinan yostetako gogo gutti zuten aitzindariak, eta dirua eskuratu zuteneko, asi ziren atsaldeko pagamentarako denak prestatzen. Eguerdie bazen gauzak xuxendu orduko.

—Goazen bazkaltzera eta atsaldean denak erne iruetako —erran zuen buruzagiak.

## —IV—

Claudet Yauna ofizinan sartu zenean, arkitu zituen bere morroiak aren zai.

—Egun on. Zer da berri? —galdetu zuen—. Zerbait egin al duzue?

—Bai, yauna, —erantzun zion batek—. Nik ekarri ditut iru «aingeru», aspaldiko zarrak: Subemandile, Mirue eta Zapelatza, iru lapur lenbiziko mallakoak.

—Ederki, ederki. Bear bada, iru oiek argi pixka bat emanen dakute illunpe ontan. Bertze berririk bai al da?

Bertze polizi batek orduan erran zuen:

—Gaur goizean gizon bat arkitu dugu ugalde bazterrean korderik gabe eta ormatua, erdi illa zagon. Dudik gabe, zanpaldi aundi bat eman zioten bart-arratsean. Zauritua eta, erran dudan bezala erdi illa zagon.

—Zer egin duzue gizon orrekin, Pontac?

—Ospitalera eraman dugu; sakelak eta bere soñekoak begiratu dizkiogu, bañan utsik zauden.

—Zer itxureko gizona da?

—Beso motxa da eta gaztea. Berrogei urte goienaz ere, yende langile oietakoa dirudi...

—Goan bear dugu ori ikustera. Bizi bada oraindik, zerbait erranen du.

Ixtanpat pensaketan egon zen eta yarraitu zuen erranaz:

—Orain ameka t'erdia dira. Bazkal orduko egiten badugu gaxotegiko itzulia, utziko ditugu bazkal ondoko yendaje oien galde-erantzunak. Bizkitertean sartzizue giltzapean. Gero Leblancen etxera, eta zuek asten aal zerate oraintxen arreata aundiakin ostatu tzar oien barna, ongi oartzuz billeteen numeroeri. Emen dituzue zenbaki oiek eta gogoan artzizue. Ni eta Pontac goanen gara oraintxen gaxotegira. Goazen lenbailen, Pontac.

Artu zuten beren autoa eta amar minutuz iritxi ziran. Orduko, gizon kolpatuura azken arnasetan zagon, eman zioten zanpaldiakin eta gañera ormatua baizagon. Gizajo arek etzuen aunitz iraunen...

Claudetek, begiraldi on bat egin ondoren, Leblanc yaunari gaztigitzia erabaki zuen.

—Nork daki? —erraten zuen—. Bear bada, izaten aal da Soziedade ortako langileen bat...

—Artu zuen telefonoa eta doi doian arkitu zituen ofizinan. Orduantxen berian bazoazin. Leblanc'ekin mintzatu ta erran zion zer gertatzen zen; eta batere denborik gabe, etorri ziren gaxotegire. Ango sendagilleak egiñalak egiten zituzten gizon ura piztu-arazteko.

Leblanc eta bere lagunak sartu zirn erien gelan eta leenik agurtu zituzten an zirenak: Claudet, Pontac eta sendagilea. Gero urbildu ziren erien goatzera eta ikusi zuten bezein laster, erran zuten denak batera:

—Mainkerra!

Denak arriturik gelditu ziren, erraten zutela:

Bañan zergatik yo ote dute gizon au? Zerbait ikusteko ote du ebaskoakin?

Orduko eman zizkioten erremedioakin, Mainkerra asi zen pixka bat mugitzen, eta ireki zituen begiak doi-doian. Galdera egin zitiozten; bañan alferrik. Gizon ura mututua zagon. Azkenean, bortxaka eta lertu urren, iduri zuen zerbait erran nai zuela, ezpañak mugitzen zituela; eta azken atsakin batean, «Beltza» erran zuen; eta etsi zituen begiek betiko. Ixilik gelditu ziren denak areri begira. Eriotz ura ikusi ondoren, dardaraldi bat sartu zitzaioten zenbaitzuei.

Claudetek erran zuen:

—Beltza, Beltza... Nor ote da ori? Ezta dudarik izen ori norbaiten izengoitie dela. bai al dakizue zuek nor den Beltz ori?

—Eztakigu, yauna, —erantzun zion Jean Pierrek. Gure langiletan beñipein ezta izen ortakorik, guk ezautzen baititugu denak beren izen eta izengoitietik.

—Nik ere fitxerotan eztut ba olakorik... Baliteke bertze lekun batetik etorri berria izatea. Beti ere argi pixka bat ageri da eta uste dut erdietsiko dugula nai

duguna. Lapur oiek eroriko dira gure saretan. Orain goazen bazkaltzera, eta lauetako agertuko gara zuen ofizinetan. Bagoaz bada. Agur!

Leblanc eta bere lagunak Mainkerraren gorputz aitzinean otoitz egin zuten aren animaren alde, eta gero abiatu ziren beren etxetara. Bazkaltzeko ordua ere bazen, ba, eguerdia aspaldian pasatua baizen. Denak etxeratu ziren tristerik, batez ere Jean Pierre. Bearrik bere emaztea beti bezela senarraren zai zagola oneri arrera on bat emateko.

Claudet etzen gizon alferra. Bazkaldu eta laisterka goan zen ofizinara iruetako. Deitu zituen giltzapean zirenak eta asi zen galde-erantzunetan.

—Aizak, Subemandile. Nor duk Beltza?

—Beltza erran duzu? Gure artean eztugu beltzik. Denak yende zuriak gara.

—Ez niok alfer solasetako... Erantzun zak bear den bezala.

—Yauna, nik egia erraten dazut. Gure lagunartean ezta izen ortakorik. Ori arrotza da guretako, eta siñistu zaidazu, yauna: guk eztugu deus ikustekorik bartarratseko ebaskoakin. Ni enitzen gau guzian etxetik atera eta baditut lekukoak, nai badezu.

—Ongi zio! —yardetsi zion Claudet'ek—. Gauzak xuxendu arte emen egon bearko duk. Badakik ongi mintzatzan, eta nabarmena i aiz gai auetan; bañan ire itz onak eta auntzen gaberdiko eztule berdin dituk.

Gero Mirue eta Zapelatza deitu zituen, bañan etzuen gauz garbirik atera, eta sartu zituzten berriz baitegian.

Lan aukeratu egin zituztenean, abiatu ziren Leblanc'en ofizina aldera Claudet yauna eta bere ondoko Pontac eta bertze lau polizi. Arat iritxi zirenean, zalaparta aundia bazen. An ziren langile guziak beren kapatazekin, asteko soldata artzeko prest. Bazuten lanik aski Leblanc, Jean Pier eta bertzeak.

Poliziek, langileek kobratzen zuten bezala, bat banaka artzen ziozten izenak eta beatzen señaileak. Ezuten bada aisa akitu lan ura. Zortziak baziren dena egin orduko.

Atsegiña artu zuten! Leblanc yaunak eskertu zituen poliziak denen izenean eta egun zorigaiztoko ura, dena ez zedin izan oroitzapen txarrekoa, afaldu zuten poliziak eta Soziedadeko agintariak Restaurant famatu batean, Leblanc'en kontura. Yaun guziz ona eta esku-zabala zen buruzagia. Beti egiñala egiten zuen bere Lagunartearan alde.

Ongi merexia zuten denak ere afari eder ura, arras aulduak baizauden eta bortizki nekatu baiziren. Erran bearrik eztago ango solasak egun artako gertakizunen gañean zirela.

—Yaunak; nik nai nuke yakin Mainker ori nor zen eta zer bizi-modu zaraman —galdegin zuen Claudet yaunak.

Jean Pierre zen obekien zakiena aren kontuetaz, eta erantzun zion:

—Gizon ori gure kapataz bat zen. Goan den gerratean beso bat galdu zuen. Ortaz bada zatorkion «Maikerra» izengoitia. Berrogei ta bi urteko mutilla zen; oraindik ezkongai, eta bakarrik bizi zen munduan. Gurasoak illak zituen aspaldian eta senideak ezkondata urrun bizi. Gobernu txarreko gizona zen, noiz-nai mozkorra, yan ere gutti egiten baizuen. Eta ori mai ona zuelarik gure lantegian, an egiten baizituen otorduek eta lo ere; gizajo arek ezpaitzuen etxerik.

—Eta zer moduko gizona zen?

—Gizon ona eta langilea, guretako beñipein. Gure ofizinetara maiz etortzen zen. Bazazkien gure etxe orren kontu guziak, eta gizon arengan uste osoa ginuen. Arritzekoa da gertatu dena.

Bertze maikideak ere baieztu zuten Jean Pierren errana. Gero Claudetek yarraitu zuen:

—Orain bear genduke Beltza delako ori arrapatu. Biartik asiko gara lan ortan. Ikusiko ditugu Frantzia guziko irietako komisariak, ia nonbaitetik agertzen den. Beti ere asiera eman diogu. Geroikusi bear nola izango den amaia.

Denak bazuten zerbait erran bearra, eta eztabaida oietan bakotxak ematen zuen bere iritzia. Baziren erraten zutenak Mainkerrak etzuela deus ikustekorik ebaskoakin. Bear bada, mozkortu ta norbaitekin aserren bat izan eta artan zanpatuko zutela ez iltzeko asmoakin. Bañan alako eguraldi gertatu baizen, ormak

il zuen.

Gero Claudetek zion:

—Gauz seguroena eta xuxenena da billete oiek arrapatzea. or bai eztutela iges egiterik, or galduko dira.

Afaldu zuten eta denen ustez gauzak ongi zoazin. Etxeratzeko ordua zen ta ala egin ere, azken agurra elkarri eman ondoren.

Jean Pierre eta Franzis elkarrekin atera ziren, eta illobak bere osaba etxera lagundu zuen. Bidean solasean goan ziren, eta osabak ziotsan:

—Zer iduritu zaizu? Gauzak bide onetik doazi ala ez?

Franzisek burua mugituz batera eta bertzera, erran zuen:

—Mainer gizajoak eztu deus erranen, eta gauzak len bezain illun dira; ezpaitutze aisa arrapatuko lau milloi oiek, lapurrak saretan erortzen badira ere.

—Ba... da... lapurrak erori ez-geroz, dirua ere gureganatuko dugu, bai.

Yende tzar oiek kasatu bearrak dire, madarikatuak.

—Trankildu zaite, osaba; ez orrengatik odol txarra egin. orain goan gaitezen goatzera eta biar igandea, egun guziko afa!

—Zu beti ero... Ai, Yesus! —erran zuen osabak asperen aundi bat egiten zuela—. Ler egiña nago. Jainkoak gau on bat igarotzeko grazia eman dezaigula.

Elizabet eta Mayi etxean ziren beren senarren zai eta ikusi zituztenean atsegiña artu zuten. Ikusi orduko besarkatu zituzten. Emazteki gizajoei oraiñik etzitzaien izialdure suntsitu.

—Berri onak al dire? —galdegin zuten.

—Bai, itxaropen pixka bat badgu —erantzun zuten—. Zuek etzaitzela izitu; gauzak antolatuko dira.

—Mainkerra lapurren artean ote zen? —zioten emaztekiek.

—Oraiñokoan gauza ezkutuan dago; deus eztakigu, ura mututu baizen betiko eta aren agotik itz bat bakarrik entzun baiginuen «Beltza», eta itz orrekin batean itzali baizen. Biartik asiko dira poliziak batera eta bertzera, ia nonbaitetik agertzen den zerbait. Bizkitertian gu egoten aal gara trankil.

—Ni beñipein —zion Mayik—, oraiñik izitue nago. Egun guzia igaro dut burutik ezin kenduz atzoko gertakizuna.

—Ez bildurrik izan, Mayi, —erantzun zion bere senarrak irriparez—. Gu emen gara eta aienatu ditezela oldozkun bildurgarriek zure burutik.

jean Pierre eta Elizabet oso logaleturik zauden eta goatzera goateko gogoakin. Izebak zion:

—Orain goan gaitezen denak goatzera; denak ere badugu lo egiteko bearra. Biar igandea. Egoten aal gara bederatziek artio yaiki gabe eta gero ameketan Meza Nagusira.

—Orixe eginen dugu, izeba, —erran zuen Mayik—. Goazen, goazen, Franzis, etxe aldera...

Azken agur bat egin ondoren bere osaba izebari, atera zirn etxeruntz senar-emazte gazteak. Gau artan ere etzen yende aunitzik karriketan; otzak ederki lekutu zituen denak beren etxetara.

Biaramun goizean orma ederra bazen. Etzegon denbora loreak kanpoan uzteko, ez eta larrugorrian mendi kasko batean egoteko ere koka-kola bat edaten.

Naiz igandea izan, Claudet yauna beti bezala xuxen xuxen goan zenbere ofizinara; eta bere morroiak ere agertu ziren bear zen tenorean.

—Nola doaie gauza? —galdegin zuen nagusiak—. Bada zerbait berri? Ibilli zerate zokoz zoko ia billete oiek agertzen diren?

—Bai, jauna; ibilli gara —erantzun zioten. Bañan oraiñokoan ezta garnorik ageri. Gaur ibilliko gara bertze leku batetik.

—Nik, —erran zuen bertze batek—, ekarri dut gizon beltz bat. Or arrapatu ginuen bart-arratsean ostatu tzar oietako batean, mozkor arraildue, denekin kuterman eta mokokan. Gañera diru aunitz gastatzen zuela oartu ginen. Ala bear zuen, bada whisky'kin mozkortzeko diru auserki bear da sakelean gaurko egunean. Begiratu dizkiogu diruak, bañan numero oiek ebatsi dituzten billeteenak eztira.

—Ekar zazue, nik ikusi dezadan.

Ekarri zuten gizona. Gazte beltz zimel bat zen eta bart-arratseko mozkorren ondorioa bazuela ezagun zuen.

Claudeten aitzinera eraman zuten ta bazirudien lotsatua zagola, burua makurtua eta lurrera begira. Komisario jaunak begiraldi on bat eman ta ondoan galdegin zion:

—Nongoa zara?

—Ni Kongokoa naiz —erantzun zion.

—Zertara etorri zara Frantzira? Zer egiten duzu emen, ta zer lanetan aritzen zara?

—Ni orai dela bi urte etorri nintzen bertze aunitzekin minetako lanetara. Nere lagunak goan ziren berriz sorlekura; bañan ni emen gelditu nintzen.

—Atzo zer ari zinen ostatu oietan mozkortu ta denekin aserre?

—Barkatu, yauna. Lenbizien ni asi nintzen edaten otza kentzeko eta azkenean, batere uste ez nuenean, mozkortu nitzen. Nik eztut iñorreri kalterik egin. Aserre nagon, an ziren yendeak beltzen kontra asi zirelakotz zernai erranka, batez ere Kongotarrendako. Nik ere sorlekua eta nere anaiak maite baititut. Nere errian kontra asi zirenian, sutu nitzen eta prest nagon edozeñekin borrokan asitzeko. Gero poliziek artu ninduten.

Claudet jaunak eskatu zaben poliziei beltzari kendu ziozten paperak. Bazituen onek bear ziren guziak, eta ongi begiratu ondoan, ontzat eman zituen. Gero erran zion:

—Ikusten dutanez, paper guziak ongi dituzu. Lanerako baimena, karneta eta bertze gañerakoak. Erenegun non zinen?

—Erenegun... —erantzun zion— nere lanetan beti bezela. Galdetu iozu, nai baduzu, nere nagusiari. Atzo larunbata baizen, etorri nitzen irira besta piska bat egiteko naikeriekin.

—Ongi dago. Gero mintzatuko naiz zure nagusiakin. Orain bertze gauza bat galdegin bear datzut. Zuk ainbertze maite bauduz zure sorlekua, zergatik etzara beingoan Kongora goaten? An izanen dituzu yosteta eta zalaparta franko zure anaien artean.

—Bai, yauna. Datorren asteangoan bearra naiz. Yende zurien artean eztut geiago egon nai. Oraintxen aspertu naiz.

—Goaten aal zara lenbailen; bañan betiko. Emen eztugu beltz bearrik. Orai egon bearko duzu emen biar arte zure gauzek xuxendu arte. Eraman zazue — agindu zuen bere morroiei.

Claudet eta Pontac asi ziren orduentxe iri guzietako komisarietara galdezka «Beltza» izengoitiko baten bat agertzen zen. Eta lan ortan igaro zuten goiz guzia. Bazkaltzeko ordua zen, eta ia etxera abian zirenean Claudetek erran zaben bere mendekoai:

Atsaldean yarraiki lan berari; bañan etzazutela onera beltz geiago ekarri.

Guk bear duguna, billatu. Atsalde arte!

Egin zuten bazkari neguko igandetan egiten zuten bezala.

Bildu ziren Claudet eta bere lagunak kafe batean. Kafeak artuz, kopak edanez, partidaren bat eginez, egon ziren seiak arte. Ordu artan komisario yauna abiatu zen bere ofizina aldera. Arat iritxi zenean, Pontac, bere morroi zintzoa, nagusien zai zagon.

—Atsalde on! Bai al da deus berririk? —agurtu zuen Claudetek.

—Ez, yauna. Orain arte ez tute deus gaztigatu.

—Ongi dago, oraino ezta berant.

—Gaur epeltxeago dago eguraldia. Eztu ainbertze otxik egiten —zion Pontacek.

—Bai, denbora eztiago dago, bai; bañan goibeldu du eta erasaten badu, elurre eginen du. Eztugu ba, maindire xuri orren bearrik.

Zazpiek aldera telefonoen turrintek yo zuen.

—Zer ote da? Badugu zerbait berri —erran zuten biek.

Uste gabeko berrie artu zuten Marsellatik. Andik erantzun zuten Claudetek egin deiarri, eta erran zuten «Belza» izengoitiz zeritzan gizona iri artakoa zela, Yendaje txarrenetakoa zela. Lenago Catcheko borrokari oietakoa izana eta orai «golfokerian» zabilhela aspaldian. Baita andik gaztigetu zuten ere Beltz ori eta bertze gaizkilea, Pizti zeritzana, alde eginak zirela iri artatik eta zortzi egun auetan etzutela bi yende txar oien berririk. Gero eman zituzten beren izen eta deiturak, gañera kartzelan egon berriak zirela biak ere. Claudet jaunak poz aundia artu zuen berri ura artu zuenean, eta eskuek igurtzi-ta pozkarioz zion:

—Ongi doaie gure afera. Ezta, bada, urrun ibilliko ohoin nardagarri ori...

Orduen etorri ziren beren ibillaldia eginik bi polizi.

—Atsalde on, jaunak! —agurtu zuten.

—Bai zueri ere —erantzun zioten.

—Zer berri da? —galdetu zaben nagusiak.

—Eztugu bada, deus erdietsi —erantzun zioten.

—Guk artu ditugu berriak masellatik. Beltza delako ori angoa omen da; oso ezaguna iri artan eta ba omen du zortzi egun andik alde egin zuela, eta uste dute bertze laguntzar batekin batean dabilhela. Emen ditut bi oien izenak. Gogoan artizue... Batena, Jean Frantz, izengoitiz «Beltza». Eta bertzearena Georges Leclerc, Pizti izengoitiz. Oraintxen eman bear dabet Parisko komisari guziei oken izenak, yakinan gañean egon daitzin. Orai erne egon bear dugu, eta gaur ezpada, biar etorriko dire zakur oiek, zeren dirurik gastatu gabe eztire egoten aal, eta, nai ta nai ez, agertu bear nonbaitetik diru ebatsiak.

Igandetan beti izaten baizen zalaparten bat leku illun oietan, poliziek bear zuten egon beti erne karteristen bat, mozkorren bat edo bertze yende zikiñen batendako.

Beti bazuten norbait oietakoa komisariara eraman bearra. Orduentxen ere ekarri zituzten bizpairu. Merexi zuten zanzaldi bat eman ondoren, sartu zituzten giltzapean. Zortziek aldera etorri ziren gauazko serbizioa egin bearra zutenak.

—Gabon, jaunak! —agurtu zuten.

—Bai zuei ere... Badakarrazue berrin bat? —erran zaben Claudetek.

—Ez; eztugu deus berririk —erantzun zioten.

Orduan eman zabezten, atsaldean artu zituzten berri guziak, eta gero nagusiak erakutsi zaben gaur artako egin-bearrak. Gauzak ongi antolatu zituztenean, atera ziren etxe aldera Pontac eta biek, denei gau on bat opa ondoren. Bidean zoazilerik, sartu ziren ostatu batean bermut bat artzera; an egonaldi labur egin ta ondoren, goan ziren beren etxera.

## —VI—

Zerue goibel eta ipar aize otzakin argitu zuen asteleneko egun ura, elur maluta batzuk ere aizeakin batean. Bear bada, epeltzen balu, xuriz jantziko lirezke Parisko karririk. Abendua ere bazoaien eta Eguberriak urbiltzen, kristau onak egun oietarako elizkizun pozgarriak prestatzen Jesus Aurraren ohoretako.

Leblanc'en ofizinan lanari lotu ziren bere ordurako osaba-illobak. Gazteak, astelenero bezala, bestondo pixka bat ere bazuen. Osaba berriz, erne eta gertu lana egiteko.

—Atzo besta ederra egin zinu... Ezagun duzu —erran zion osabak illobari.

—Bai, nere lagunekin afaldu nuen ederki eta edan ere egin ginuen auserki, an baiginuen edari mota guzietatik.

—Zer zinu ten bada, atzo?

—Lagun batek betetzen zituen urteak, eta aren konture afaldu ginuen lagun guziek.

—Gero etorriko da zure aldie. Prestatzen aal duzu boltsa...?

—Ba... Orduko, bear bada, aberastuko naiz loteriekin.

—Eta Mayi gaixoa utzi zinu bakarrrik etxean. Eztuzu lotsik.

—Lenago ere oitue dago! ezta lenbiziko aldie...

—Bai, bañan gertatu diren gauzeekin, badakizu gizajoa izitue dagola, eta eztago ongi emaztea etxean bakarrrik uztea.

Ortan etorri ziren Leblanc eta Etxemendi jaunak.

—Egun on. Egin duzue lo? —agurtu zuten.

—Bai. Zuek ere bai? —erantzun zioten.

—Atzo nola igaro zinu ten igandea? —erran zuen Leblancek.

—Ederki —erantzun zion Jean Pierrek. Gu Meza nagusia entzun eta etorri ginen etxera, eta ez ginen atera egun guzien. Neguko egun ok obeak dire etxean egoteko.

Leblancek leiotik begiraldi bat eman zuen zerure eta erran zuen:

—Goibel dago. iduri du erasan bear duela...

—Bai, bañan erasaten badu elurre eginen du segurik —zion Etxamendik.

—Ez dezala egin. Eztugu orren bearrik gure lantegian. Alderdi ederra orai elurrengantik egoten bagineke egun saill bat lanik egin gabe... Irabazi ederra urtea ongi akitzeko.

Gero laneko kontuek egiten aritu ziren denak. Eskutitzak, idazkiak eta abar. Gizon batzuk ere etorri ziren lan billa; bañan etzituzten artu. Bazuten yende franko lantegian, geiago artu gabe.

Ameketan izan zuten uste gabeko bisita. Claudet yauna agertu zitzaien Pontacekin.

—Agur, jaunak! Ari zerate lanean egin aal guzian? —agurtu zuten.

—Agur. Ongi etorri! —erantzun zuten denak.

—Badakarregu berri on bat. Begira zazue...

Eta Claudetek erakutsi zaben larruzko kartera bat. Denak batera egin zuten pozkariozko karraxi bat, boltsa ura ikusi zutenian; Jean Pierrek, batez ere.

—Au al da ebatsi zuten aietako bat?

Kartera artu eta begiratu zuten.

—Bai, yauna, bai. Auxe eta bera da lau milloiak zituena.

Leblancek eskuetan artu eta begiratu zuen barnean.

—Utsik dago —erran zuen arrituta.

—Bai, utsik dago. Gure polizia batek arrapatu du ugalde bazterrean gaur goizean, Mainkerra arkitu zuten inguru artan. Dudik gabe lapurrek boltsa ustu ta ondoan, bota izanen zuten ugaldera.

Denak sor ta lor gelditu ziren. A zer zoritxarra!

—Etzaitzela arritu. Gauzak ongi doazi. Erran dezakegu badakigula zein den lapurre, eta orrek eztu iges biderik. Arrapatuko dugu.

—Bai; lapurre bear bada eroriko da; bañan lau milloi oiek... Eztakit,



eztakit. Eztut itxaropen aundirik —zion Leblancek.

—Eta zer egin ote dute nere erlojuekin? —erran zuen Franzisek.

Olako solasetan aritu ziran eguerdi artio. Orduko pixka bat lasaitu ziren. Bazkaltzeko ordua ere urbil zagon eta Leblancek aginduz goizeko lanari eman zioten amaia.

—Goazen, goazen —erran zuen Leblancek—. Konbidetzen zaiztet «aperitif» bat artzera.

Atera ziren denak etxe artatik eta sartu ziren bar batean. Exeri ziren maian lasai lasai. «Cinzano» batzuk edan eta solasaldi bat egin ondoren, abiatu ziren denak beren etxetara; bazkaltzeko ordua ere bazuten.

## —VII—

Umore ederrakin puro bat erreaz, sartu zen bere lantegian Claudet yauna. An, beti bezala, Pontac bere zai.

—Atsalde on! Egin duzue bazkari? —agurtu zuen.

—Bai, zuk ere bai? —erantzun zion.

—Egin dugu guk ere —erran zuen nagusiak.

—Bere abrigoa kendu eta exeri zen yarleku goxo guri batean puroa erretzen zuela atsegin aundiakin. Gero izketan asi zen eta, bere agotik ateratzen zuen ekeakin batean, ziotsan:

—Gaur badirudi bakezko eguna dugula. Eztugu lan aundirik. Ikusiko dugu zer berri dakarraten goizean or barna ibili direnak. Apostu eginen nuke ixtante ontan Beltza ere puro bat erretzen ari dela, ni bezala.

Gero irriz ajataka, zion:

—A, Beltza, Beltza! Bear bada, aurten eztuk puro geiago erreko...

Ortan sartu ziren goizeko eta eguerdiko lana egin zuten ertzañak. Sartu orduko nabari zuten beren aurpegieta berri onen bat zekarratela.

—Egun on, jaunak! —agurtu zuten.

—Zer da berri, zer da berri? —galdegin zaben Claudetek.

—Berri onak, nagusi. Begira zazu...

Eta erakutsi zizkioten lau billete berri berriek 10 frankokoak.

—Eman zaizkidazue, ikusi ditzadan.

Begiratu zituen ongi numeroak eta alaiki erran zuen:

—Arrigarria... Auexek dira, ba. Non arrapatu dituzue?

Iri bazterreko ostatu batean sartu gara eta egin dugu iri guziko ostatuetan egin oi duguna: Kajao dirua ikusi nagusiaren baimenarekin. Antxe arkitu ditugu lau billete ok. Eta poztu zaite. Beltzak emanak omen dira atzo arratsean.

—Ekarri al duzue ostatuen nagusie?

—Bai, yauna; ementxe dugu.

—Sartu dadiela.

Sartu zen gela artan gizon apal lodixka bat, eta agurtu zituen denak.

—Exeri zaite nere ondoan —erran zion komisarioak—. Galdera batzuk egin bear dazkizut.

—Bai, yauna, egin zazkidazu. Nik egia erranen diot.

—Leenik, zure izen eta deitura.

—Georges Leduc. Emen dituzu paperak.

Eman zion karneta eta Claudetek ontzat eman zuen.

—Zu zara ostatuen nagusia?

—Bai, yauna, ni naiz; nerea da.

—Zer yende sartzen da zure etxean?

—Denetatik, yende arronta geiena.

—Gaizkileak ere, ikusten dutanez. Yakinen gañean egonen zara nola zuk artutako billete oiek goan den ortziralean ebatsiek zirela.

—Bai, yauna. Erran datate zure gizonak. Bañan badakit nork emanak diren.

Oroitzen naiz, ongi oartu baintzen billete berri berriek zirela. Gañera, erran nion irriz emaleari: «Diru berriak dituzu ok. Zuk eginak al dira?» Oraindik ere irriz aritu ginen alfer solasetan gai orri buruz.

—Nola du izena gizon orrek?

—Izena eztakit, bañan izengoitiz «Beltza» deitzen diote. lagun bat ere badu.

Orreri «Pizti» erraten diote.

—Noiz ezagutu dituzu yende oiek?

—Egun auetan ezagutu ditut. Oiek etorri berriek dire. Solasetik ego

aldekoak dirudite.

—Ortziralean zure etxean izan ziren biek bertze lagun batekin?

Pixka bat egon zen pentsatzen, eta gero erran zuen:

—Bai, oroitzen naiz. Egun artan afaldu zuten bertze gizon batekin. Gañera,

au beso motxa zen. Oartu nitzen ongi.

—Eta larunbatean etorri ziren iruek?

—Ez; erbal ura etzen etorri; bertzeak, bai; eta afaldu ere egin zuten biek. Atzo, berriz, lagun geiago ere bazuten eta mozkortu ere egin ziren pixka bat.

—Gaur ere etorriko al dire?

—Bai, yauna; uste dut etorriko direla, egunero bezala.

—Geroxeago goanen gara elkarrekin zure etxera eta lagunduko gaituzu oiek arraptzen.

—Bai yauna; lagunduko zaituztet.

—Eztakigu zer kontzientziko gizona zaren. Zu beti yendaje oien artean bizi baizara.

—Ez yauna, ez. Nik eztut beñere txarkeririk egin, eta badakizu enaizela kartzelean egon oraindik.

—Ikusiko dugu bada, nola laguntzen gaituzun.

Bertze ordu bat egon ziren, ilunabartu arte. Bizkitertian, antolatu zituzten eginbear zenbaitzuk eta prestatu ziren Georges-en etxera goateko. Illundu zenean, abiatu ziren alderi artara Claudet, Pontac eta lau ertzain Georgesekin batean. Bada-ezpada're, armak eta izkilluak eraman zituzten.

Ertzaiñen beribillak zauli igaro zituen karriek, eta orduentxen zuriz yaunzten ari ziren. Elurre zanpa-zanpa ari zuen eta neguko zitu orrek ederki estaltzen zituen zoko guziak. Sei t'erdietan iritxi ziren ostatu artara. Komisario jaunak arreta aundiakin inguratu zuen etxe ura lau gizonekin eta bera, Pontac eta ostatuko nagusiakin sartu ziren barnera. Ekeaz eta usain txarraz betea zagon leku zikin ura. Yende pille bat ere bazen elkarren artean eztabaida aserretan, kantuz irriz eta edaten.

Ango morroiak bazuten lanik aski eki serbitzen. Poliki poliki urbidu ziren edan lekura, eta bizkitertian nagusia alde guzietara begira. Etzuen, ba, aunitzik luzetu bere begiraldia. Betiko zokoan zauden bi yendajeak trankil aski zerbait edaten. Keñu bat egin zaben ostalariek polizieri.

—Zoko artan dauden gi gizon aiek dire, —erran zaben ixilik.

—Ongi dago. Goazen, Pontac.

Urbildu ziren mai artara eta Claudetek lasai lasai erran zion Beltzari denbora berean komisarioen «txapa» erakusten ziola:

—Emango didazu zure karneta, faborez? Ikusi nai nituzke zure paper oiek, eta zureak ere prestatzizu —erran zion Piztiari ere.

Bi gaizkileak arriturik gelditu ziren areri begira, gorrotozko aurpegiakin. Bizkitertian Pontac erne zagon, izkillua eskuen eta sakel barnean, bada-ezpada're.

Bi yendajeak atera zituzten beren karnetak eta eman zizkioten Claudet jaunari. Onak begiratu zituen ongi eta an agertu ziren Marsellatik emanikako izen ber-berak. Aurrez aurre zituen bi gaizkileak.

—Orduen, zu zara Beltza eta zu Pizti.

Au aditu zutenian, bi yendajeak oraiñik arrituago gelditu ziren; bañan Beltzak burue altxatu ta erran zion:

—Bai, ala gara. Eta zer?

Orduko, kanpoan zai gelditu zirenetako bat sartu zen barnera, eta Pontac'en keñu batekin batera etorri zen ekengana, eta asi zitzaizkion lapurrei soñekoak begiratzen.

—Zer? Au ere badugu? —erran zuen Beltzak kolera aundian—. Zer nai duzue gurekin?

Begiratu zabezten ongi, eta arrigarria! Etzuten ezta naal ttipi bat ere sakelean...

—Eztute armarik —erran zuen polizi begiraleak.

—Zer uste zintuen, ba? —yardetsi zaben Beltzak—. Guk eztugu iñorreri kalterik egin eta utzi gaitzazue bakean.

—Emaidazue diruen boltsa —erran zion komisarioak.

—Nere boltsa zertako nai duzu? zu ertzaiñen aitzindaria izanagatik, eztuzu eskubiderik nere diruak ikusteko.

—Emaidazue biek ere onez onean; bertzenaz...

Beltza otsoa bezala zagon. Borrokarien antzera yarri zen. Besoak zabal, denei iretsi naiez, begietatik txispek ateratzen zituela. Orduan poliziek atera zituzten pistolak gaizkileei apuntetuz.

—Ba, ortaz balietzen zerate, bai —erran zaben Beltzak.

Azkenean boltsa atera zuen, eta billetez ongi aunpatua. Claudetek artu zuen eskuetan eta begiratu zituen billeteak eta an ziren geienak, berri berriek eta ebatsitakoak agertu ziren.

—Eztago dudik... Erori zerate. Artizue! —agindu zuen komisarioak bere menpeko ertzañeri.

Armak eskuetatik utzi gabe, lotu zituzten esku-muturretike ta abiatu ziren komisaria aldera.

«Taska» artako guziek ango zalapartari oartu zirenean, ixildu ziren, denak arriturik eki begira. An arkitzen ziren zenbaitzuk estali zituzten beren aurpegiak bada-ezpada're, ezagutu etzazten. Lapur txiki eta lapur aundi, ango yendajeen artean orotarik baziren.

Etzituzten aunitzik bortxatu bi lagun tzar oriek. Ixilik, itzik erran gabe, goan ziren bide guzian. Claudet eta bere aldekoak, b erriz, nabari zuten alaitasuna.

Komisariara iritxi ziren eta denborik galdu gabe asi ziren galde-erantzunetan. Leenik Beltzari egin zizkioten. Bizkitertean, Pizti berex iduki zuten, bertze gela batean.

Claudet asi zen:

—Azkenean erori zara, Beltza, Nik etzindudan ezagutzen; bañan dudik gabe zure izena aipatua da ego aldean. orai erradazu: non dituzu zuek ebatsitako lau milloiak?

—Guk eztugu lau milloi oiek ebatsi. Ori zuek asmatutako gezur bat da.

—Nola gerzurra? Eztuzu ukatuko orai 500 franko berri oiek artu zintutela, zure sakelean oraintxe guk arrapatuak.

Beltzak galtze txarra zuen, iduri zuen denak iretsi bear zituela eta erran zuen modu txarrean:

—Bai, oiek ebatsi gintuen; bañan ez ordea zuk erraten dituzuen lau milloiak.

—Bai Beltza, bai. Lau milloi eta erloju bat gañera, artu zintuten. Ori guzie Mainkerrak aitortu zuen il aitzinean. Berak erran zakun nola zanpatu zifñuten eta nola egin zintuten ebaskoa iruen artean. Gero iges egin zintutela diru guziekin, areri erdi illa utzi ondoren.

—Ori gezurra da —zion Beltzak aserre—. Guk eztugu deus ikustekorik Mainker delako orrekin.

—Zuek «gillotina» merexi duzue, lapurrek eta eraileak zeratelakotz. Mainker ori zuek il zintuten. Ori segurki dakigu. Ortaz bada, eztuzue barkamenik.

—Ori ikusiko dugu. Nik aldeztuko dut nere burue. Badugu guk ere geren abogadua.

—Gizon arroa zara. Ezagun duzu borrokaria izan zarela; bañan emen zure indarrak eztute deus balio, eta gizon maltzurreri eta gaiztoeri ematen zai merexi dutena.

Gero erran zaben ertzañei:

—Eraman zazue zakur au emendik eta datorrela bertzia.

—Kasu, gero, nere boltsa orrekin. Or baitut nik zuzenbidean irabazitako dirua. Eztire denak Leblancenak.

—Ago ixilik, «Beltzarro» —erran zion ertzañi batek besotik artzen ziola; bañan bazuten lanik aski iruen artean ere gizon bizkor ura menperatzen.

Claudetek zion bere baitan:

—Pizti ori segur naiz aisa eskolatuko dugula.

Ekarri zuten Piztia Claudeten aitzinera. Bazirudin lasai zagola eta naspil oietan oitue. Orañik ere irri itxura batekin, batere bildurrik gabe, bere begi bixiekin alde guzietara begira.

Claudetek begiratu zion zorrotz eta erran zion:

—Aitor zazu egia, gertatu zen bezala.

—Bai yauna; nik 500 franko berri oiek ebatsi gintuena aitortzen dut. Eztugu

ukatzerik. Bañan ez lau milloiak «Journal'ak» zabaldu duten bezala. Guk boltsa bat bakarrik artu ginuen eta artan ziren diru pizer oiek. Bertzelako lana!

—Zuek zerate erail nardagarri batzuk. Eztuzu ba, orai Mainkerra il zinutela ukatuko. Badakigu ongi aski, berak aitortu baizuen il aitzinean lau milloiak in iges egin zinutela bera il urren utzi ondoren; eta oraindik geiago: lau milloi oiek gordetzen zitun larruzko boltsa ura ugaldeta bota zinutela... Ona emen kartera, guk biaramunean arkitua, berak erran zuen leku berean.

Piztiak azeria bezain bizi yardetsi zion:

—Guk eztugu beñere boltsa ori ikusi. Yoko zikinetan ari zerate.

Gero ixtanpatez pensaketan egon eta oiuka erran zuen:

—Urde madarikatua! Orai ikusten ditut gauzak garbi. Guk iges egin ginuenean, bera barnean gelditu zen oraindik eta orduan eginen zuen xikana ori.

—Bañan ez tinuten burni-kutxan bi kartera ikusi? —erran zion Claudetek.

—Burni-kutxa edeki ginuenean yendeen solasak eta irriak nabaitu gintuen goitien. Orduan deus begiratu gabe artu ginuen boltsa bat eta ez ginen bertzerik bazenik oartu. Laisterka atera baiginen andik. Mainkerra an gelditu zen eta ez ginuen ordu erdi batean ikusi. Aren zai egon ginen lenago autatutako biltokian.

—Eta zergatik yo zinuen lau milloiak kentzeko ezpazen?

—Ni ortan errugabea naiz; nik ez nuen gizona ukitu. Beltzak zanpatu zuen; bañan ez dirue kentzeagatik, ez bait-zakarren deus, iruzur egin zakulakoz baizik. Dudik gabe arek bazuen bertze lagun bat aren zai eta areri eman zition diruak boltsa ugaldeta bota ta ondoan.

—Ori eztut siñesten. Ergelkeri ori egiteko, etzuen zuengana goan bearrik. Emen bada gauz zikinen bat eta garbitu bear dugu. Beti ere, zuek gue eskuetan zagozte eta zuen gain duzue eriotz bat ebaskoakin batean... eta diru oiek agertu bearrak dire.

—Zu segur zaude, yauna, eta ni ere bai. Eztut uste 500 franko ebasteagatik burue kenduko digutenik. Auzia ongi aterako dugu, geren aldezkariak ere baititugu.

—Zuek bezelako gaizkileak garbitu bearrak dire lenbailen.

Gero azkenean koleratue erran zuen Claudet jaunak:

—Eraman zazue Pizti tzar au emendik.

Bi gaizkileak giltzapean sartu zituzten, leku berexietan, elkarrekin egon ez zitezen. Gauzak etziren bada oraindik garbitu, bañan Claudetek uste osoa zuen bere baitan.

Afaltzeko ordua ere bazen eta komisario jaunak erabaki zuen Leblanc eta bertzei afalondoan gatzigatzea etorri zitezen. Gero, lenago artu zituzten iru gaizkile eken libertatean baiezkoa eman zuen. Bertze gauz batzuk ere xuxendu zituzten eta goan ziren afaltzera.

Kanpora atera zirenean elurre ari zuen gogotik. Leblanc eta bere lagunek berrie artu zutenian, pozez erotu ziren. Afal ondoan goan ziren denak komisariara utsik egin gabe. Orduko prest beren lekuetan Claudet, Pontac eta bertze ertzañak.

—Gabon, jaunak! —agurtu zuten sartu zirenean.

—Bai zuei ere; ongi etorri, adiskideak. Gaur berri onak ditugu. Poztu zaitzte.

Mai gañean zituzten lapurrei kendutako billete ebatsiak.

—Emen dituzue zuen diruak, erran zaben Claudetek.

Lenbiziko begiraldiakin batera erran zuten Leblanc eta Jean Pierrek:

—Eta lau milloiak non dire? Emengo billeteak berritakoak dire; bañan lau milloi oiek ez ditugu ikusten.

—Bai, emen 400 franko dire 40 billetetan. 100 franko berri gastatu dituzte eta emen ezta bertzerik. Bertze diruetaz eztute deus aitortu oraindik. Lapur auek eskola aundia dute; bañan etzaiete balietuko.

—Eta erlojuaz ere eztute deus erran? —galdegin zuen Franzisek.

—Ez —erran zuen Claudetek—. Ori agertuko da lau milloiekin batean, dudik gabe.

Gero yarraitu zuen:

—Bi lapurrek giltzapean ditugun bitartean bortxara atera-araziko dabegu diru oien gordelekua non dagon.

—Eta ezpadire gure diruak agertzen? —zion Leblancek.

—Bai, yauna. Agertuko dire; ez bildurrik izan. Orai, legeak agintzen duen bezala, juizio egin bearke da. Lapur eraile oiek izanen dute merexi duten zigorra.

—Altxatzen aal ditugu diru pizer ok? —erran zuen Leblancek.

—Ez oraindik. Leenik egin bear dire paper zenbaitzuk, eta bear bada juizioa egin artio eztuzue eskuratuko.

—Eta noiz izanen da auzia?

—Eztakigu, bañan alakoetan goaten dire uste gabeen lau edo bortsu illabete auzia garbitu arte.

An agertu ziren egunkarietako idalzari oietakoak eta ongi artu zituzten gertakizun guziak, berrie zabaldu zedin iri guzian. Erretratoak ere atera zituzten bi gaizkillei.

Ertzañen lana aipagarria zen eta gauzak ongi zoazin. Ordua ere bazoaien eta Leblanc bere lagunekin etxera abiatzeko prest ziren eta Claudet yaunak erran zaben:

—Gaurko naikoa egin dugu. Zuek goan zaitetze trankil etxera, eta zerbait berri baldin bada, gaztigituko dazuet.

—Eskerrak, yaunak, guregatik egin duzuen lanengatik. Denen izenian ematen dazkizuet gure eskerrik oberenak —erran zaben Leblancek.

—Eztugu merexi. Gu emen zuei zerbitzeko gaude.

—Agur, bada. Gabon igaro eta eskerrak berriz ere.

—Gauz bera opa dizuegu guk ere. Agur.

Atera ziren etxe aldera Leblanc eta bere lagunak. Claudetekm eta bere menpekoak oraindik bazuten lan pixka bat aguazak ongi paratzen; bañan laster akitu zituzten beren eginkizunak. Komisario yauna Pontacekin atera zan ofizinatik ertzañen beribilean beren etxe aldera. Bidebanarkoan, kafesne bana artu zuten «bar» batean eta etxeratu ziren.

Atsegin ederra artu zuen komisarioak oeratu zenian. Loak artu baño len, bere oldozkunetan bueltaka, zion bere baitan:

—Egia ote da yendaje oiek erran dutena, lau milloiekin deus ikustekorik eztutela? Eta erlojuen gaiñean ez ginuen deus mintzatu. Ezpadute ondatu, nonbait agertuko da. Eta ortik garbi atera dezakegu guk nai duguna.

Gero loak artu zuen, eta etzen iratzarri goizeko zortziak arte.

## —VIII—

Claudet jaunak, goatzetik yaiki zenian, leenik leiotik begiratu zuen. Arriturik gelditu zen bart-arratsean egin elurketaz. Orduko atertu zuen eta iri-garbitzaleak bertze langille andana batekin gogotik ari ziren karrikek garbizen. Anbateko elur pilek egin zituzten.

Pontac etorri zitzaion atera, ertzañen beribillakin nagusia billa. Au prestatu zenean, goan ziren poliki poliki irristatzeko bildurrekin bere ofizinerario. An zirenak agurtu zituzten eta segidoan asi ziren beren lanetan. Gogo aundiakin artu zuten Leblancen afera. Goiz artako lenbiziko lana izan zen, giltzapean lenago sartu zituzten iru gaizkile eki libertatea ematea. Arro xamar atera ziren andik Mirue, Zapelatza eta Subemandile, eta oraiñik azkenengo onek erran zuen atetik:

—Berriz eta berriz erranen datzut, komisario yauna, ni enaizela gauz oietan sartzen eta gizon zintzo bat naizela. Orai nork ordainduko dauzkit galdu ditudan egun ok? Ederra egin dautazue!

—Ago ixilik, Subemandile zikina! Goaie emendik! —erran zion Claudetek.

Paperak eta bertze zerbait egin ondoren, Claudetek erran zion Pontaceri:

—Asia eta ain ongi doaien lana eztugu eskutik utzi bear. Gaur gure ibillaldiak, erlojeri eta sal-erosketan aritzen diren beste botige oietan egin bear ditugu. Bear bada, erloju ura saldua izanen dute oietako etxen batera. Goazen, Pontac.

Beribilla artu eta abiatu ziren. Leenik Friedrichen etxera goan ziren. Barnera sartu eta agurtu zuten:

—Egun on, yauna. Zer diozu?

—Ondo eta zuek? —erantzun zaben Friedrichek.

—Ez al da deus agertu? —erran zion komisario jaunak.

—Ez yauna. Oraindik ezta ezer azaldu. Emanak ditut erlojeru zenbaitzueri erloju aren seña guztiak. Uste dut andik edo emendik azalduko dala.

—Or dituzu «seña» oiek? Nik ere bear ditut.

—Bai yauna. Emen dituzu: Longines, ref. 13.54, nº 4499781. Erloju ura ikusi orduko ezagutuko nuke nik saldua zela, askotan antolatu bai nuan. Bazituen urte batzuek erositik; bañan oraindik ondo zagon.

Eman zion Friedrich jaunak erlojuen numerazioa eta Claudetek artu zuen.

—Milesker yauna. Gu ibiliko gara orai «txatarrerie» erosten duten etxe oien barna, eta bear bada agertuko da nonbaitetik, eta ikusten ditugun Longines guziek ekarriko dazkizugu, zuk ikusi ditzazun.

—Eskerrik asko, eta agindu nai duzuen.

—Agur. Bertze egun bat artio.

Atera zen agusia bere morroiakin eta goan ziren «Rastrora». Egun artan yende gutti zebillen eta gure gizonak lasaiago ibili ziren zokoz zoko. Ikusi zituzten ainbertze erloju zar eta berri eta bazter guziek naasi ondoren, iru Longines atxeman zituzten esku-muturrekoak eta altzairuzko kajekin. Saltzaleakin eztabaida ederrak izan zituzten; bañan etzituen ukatzen aal komisarioen aginduak. Emateko lana izan zuen iru erloju aiek, baño bearrezko ageriak egin eta ondoan eman zituen. Artu zioten izena saltzaleari eta azkenean atera ziren zoko artatik.

Eguraldiak illun segitzen zuen eta itxure txarreko otza zagon. Eguerdie urbil zen. Claudet eta Pontac kontent ziren egin zuten lanakin. Leblancen ofizina etsi baño len an egon bear zuten eta iritxi ziren bear zen tenorean. An, Leblanc eta osaba illobak.

—Egun on, jaunak —agurtu zuten alaiki ertzañek.

—Bai zuei ere. Ongi etorri, —erantzun zabeten.

—Ari zerate betiko lanean? —erran zuen Claudetek.

—Bai, emen ari gara beti bezala —erantzun zion Jean Pierrek.

Komisario jaunak atera zituen sakeletik iru erlojuek eta erakutsi zitien Franziseri, erraten ziola:

—Auetako bat al da zurea?

Franzisek artu zituen bere eskuetan eta begiratu ondoren, erran zuen:  
—Ez, nerea eztago emen. Marka berekoak dire iruak ere.  
Gero berexi zuen bat eta erran zuen:  
—Au bezal-bezalakoa zen.  
Gero komisarioari begiratu ta erran zion:  
—Barkatu, nere ausarkeria; bañan nondik erdietsi dituzu iru erloju ok?  
Altxapean zituzten lapur oiek edo...?  
—Auek «Rastroan» atxeman ditugu, eta badakit segurki, zure erlojua suntsitu ezpadute, norbaiteri saldue izanen dutela, eta olako zokoetan ezpada agertzen, erlojerin batean agertuko da.  
Gero Leblanc jaunak atera zituen zigarroak eta eman zaben denei:  
—Milesker, —erran zuen komisarioak. Eta yarraitu zuen:  
—Nik gogo aundiakin artu dut zuen afera, eta egiñalak eginen ditut gure naia erdietsi artio.  
—Berriz ere eskerrak ematen dazuegu. Sobera egiten duzue guregatik —erran zion Leblancek.  
Gero Jean Pierrek galdegin zuen:  
—Noiz yuzkatu bear dituzte bi gaizkile oiek?  
—Oraindik ori eztago erabakia; bañan nik uste dut apirile aldera izanen dela juizioa. Biar aldatuko ditugu lapur oiek baitegi nagusira, an egon daitzin auzia egin artio.  
Leblanc jaunak erlojuari begiratu ta erran zuen:  
—Eguerdia da. Utzi dezagun goizeko lana eta goazen «bermut» bat artzera. Lagun guziek atera ziren alaiki eta aldameneko bar batean egonaldi goxo bat egin zuten edaten eta irri-solasetan bazkal ordua arte. Gero yoan ziren beren etxetara.  
Claudetek eta, goizean asitako lanari bear zioten yarraiki, eta atsaldean agertu ziren berriz Friedrich'en etxera.  
—Atsalde on. Berriz emen gara —agurtu zuten.  
—Ongi etorri nere etxera. Zer berri da?  
—Badakarzkigu iru erloju «Rastro» zokoan atxemanak. Ikusitzu ia otako bat den bada-ezpada're.  
Artu zituen Friedrichek eskuetan eta berexi zuen bat.  
—Au bezalakoa zan; bañan au askoz zarragoa da. Begiraldi bat eman bear diot.  
Ideki zuen erlojua eta begiratu zuen ongi:  
—«Referentzia» berdiñ berdiña du; bañan ezta au. Ura obeto zagon au baño. Nik ondo ezagutzen nuen erloju ura.  
—Milesker. Orañ itzuli bearko ditugu tresna ok beren yabeari. Barkatu, eman dazagun alfer lanengatik.  
—Ezta ezer orregatik. Etorri, etorri lasai. Nik pozik lagunduko dizuet eta agindu zaidazue nai duzuena.  
—Milesker berriz.  
—Agur jaunak. Beste egun bat arte.  
Berriz ere «Rastrora» goateko lana izan zuten. Emen zizkieten yabeari iru erlojuek eta erran bearrrik eztago onek atsegiña artu zuela, beldur baizen kenduko zioztela. An diren saltzale aunitzek bezala, orrek ere bazituen lapurrei erositako gauzak.  
Ango itzulia egin ta etorri ziren ofizinara.  
Egun aietan etzen lan aundirik. Dudik gabe gaizkileak ere elurte arekin alfer zauden.



## —IX—

Igaro ziren lau egun orma orma gañean. Bazuten iritarrak elurre bear bada ilabete bateko. Negu bortitz aren erdian eta olako eguraldiakin etzen aisa urtuko elur ormatua. Ongi ornitutako etxe zenbaitzutan Eguberri ederrak pasatuko zituzten, ez ordea bertze zenbait beartsuk. Ok beltzak ikusi bearrak ziren, gizajoak.

Iritxi zen Eguberri bezpera, Gabon eguna. Eta bertzetan bezala, Leblancen ofizinan lanean egin aal guzian. Egun artan bear zituzten akitu lan guziek eguerdirako, atsaldean denek besta egin zezaten. Gañera, langileek artu bearra zuten beren soldata Eguberriko sari berexi batekin. Ortaz bada, goiz guzie igaro zuten lan ortan. Bozkariozko eguna zen eta nabari zuten denak alaitasun bizi bat, maitasunezko agurrak elkarri eginez egun zoriontsu artan. Leblanc eta Chatonet Bazkuna, bere nagusia buru zutela, an aritu ziren goi guzien lanean. Eguerdi eguerdian eman zioten amaia. Leblanc jaunak erran zuen:

—Gabon eta Eguberri zoriontsu bat opa dizuet denei! Yesys Aurak eman dezaigula grazia elkartasun onean bizitzeko.

—Milesker, yauna. Gauz bera opa dizuegu zuri eta zure etxekoei —erantzun zioten.

—Agur jaunak. Egin bazkari!

Azken agurra egin eta goan zen bere beribil ttipian nagusi yauna. Bertze ainbertze egin zuten Etxemendi eta Chatonet jaunak, ok ere beren autoetan.

Osaba-illobak gelditu ziran ixtanpat. Osabak zion:

—Gaur illunabarrean espero zaituztegu. Gaboneko afaria elkarrekin egin bear dugu. Elizabetek prestatuko du afari eder bat, bear bezala ospatzeko Gabon zoriontsua.

—Bai, osaba. Etorriko gara, utsik egin gabe.

—Agur eta goiz etorri.

—Agur, osaba.

Claudet yauna eta bere menpekoak ere Gabon eguna ongi ospatzeko asmoa zuten kristau oiturari yarraikiz, sendi onak egiten duten bezala. Baitegian ere gaizkileak atsedean pizka izan zuten. Jesus Aurtxoaren graziak denetara zabaltzen ziren.

Atsaldeko sei t'erdietarako Jean Pierren etxean ziren Franzis eta Mayi. Negu beltz aren erdian Pariseko karririk dirdirutzen zuten argi bizi aiekin elurren artean ortz-adarra iduri.

Arrera maitekor bat egin zabezten osaba-izeba zarrak illoba gazteei. Gero bi emaztekiek lotu ziren sukeldeko lanetara afari goxo bat egiteko naikeriekin.

Bizkitertian, Jean Pierre eta Franzis aritu ziren musian «Cinzano» bana artuz.

Osabak erran zion:

—Nork erran bear zuen Eguberriko arrapatuko zituztela lapurrak? Orai ospatu dezazkegu Eguberri on batzuk, naigabeak aienatu ta ondoan.

—Bai, ala da, osaba; bañan nik erran buena gertatu da. Lapurrek erori; bañan lau milloiak eta nere erlojua ez.

—Agertuko dira, bai. Ikusiko duzu, oria ezpada, gero. Auzia lua ilabeten buruan izanen da; bañan orduko zerbait eginen da.

—Utzi zagun auzi ori alde batera, osaba.

Orduan Mayi etorri zitzaioten ondora eta erran zaben:

—Utzizue solas oiek. Gau pozkariozko eguna da. Afarie prest dago eta dasta dezagun yanari ederra.

Gero Elizabetek oiuegin zuen sukeldetik:

—Zatozte denak afaltzera.

Exeri ziren maiean eta, otoitza egin ondoren, afaldu zuten. Irri-solas atsegiñetan igaro zuten ederkixko. Franzis sasoi ederrean zagon eta yan zuen «zanpet» egin artio. Gero, umore ederrakin, zenbait kanta zaar ere abestu zuten. Jean Pierrek eman zuen asmenta Euskalerriko kanta eder onekin:

Ator, ator, mutil etxera,  
gaztaña ximelak yatera,  
gabon gaba ospatutzeko  
aitaren t'amaren ondoan,  
ikusiko duk aita barreka  
ama're poz atsegiñez.

Eragiyok, mutil,  
aurreko danboñil orri,  
gaztañak erre artean,  
gaztañak erre artean,  
xipli, xapla, plost!  
Gabon gaba pozik igaro daigun.

Lauren artean ederki abestu zuten bi bozetara Gabon eguneko kanta polit  
au. Gero Elizabet eta Pierrek aldizketuz abestu zuten beren sorterriko kanta  
unkigarri bat:

Birjina ona, norat zoaz?  
bihur zaite etxera,  
ezen eztuzu zeren ioan  
Bethleen barrenera.

Joseph norat daramazu  
Birjina unaturik?  
Bethleenen edirenen  
eztuzu ostaturik.

Oh Yauna! Oraiño Amaren  
sabelean zaudena,  
pazientki sofri zazu  
egin zaizun obena.

Aurtxoa, zure sortzeaz  
mundu guzia da bozten,  
zure seaskari diot  
agur umila egiten.

Oren onez sor zaitela  
gure mundu ederrean,  
esklabo gaude guziok,  
aurra, zure bearrean.

Zuk menderatuko tutzu  
gizon guzien etsaiak,  
guziei zuk idekiko  
gloriako iturriak.

Oraiñik ere geiago egin zituzten eta zein ongi eta zer sendimenduakin  
abesten zituzten Eguberriko eskual kanta zaarrak osaba-izebak! Oraindik biotzean  
zituzten Euskalerriko oiturak eta mintzaira. Etzuten ez, ahantzia beren sorlekua.  
Illoba gazteak berriz, Parisen sortuak baiziren, eta beren gurasoen lurra ezagutzen  
ezpaizuten, etzuten osaba-izebaren zaletasun bizi ura.

Amabiak urbildu zirenean, eman zioten akaballa bestari, eta Elizabetek  
erran zuen:

—Orai goazen gure Parrokira gaberdiko Meza entzutera. Agurtu zagun yesus  
sortu berria eta eman dezaigun eskerrak.

Franzisen Peugeotean gusto gustora goan ziren Elizeraño eta Meza entzun ta

ondoan elizkizun zoragarriak ere egin ziren, kristauak alaiki kantatzen zutela Jesus Aurtxoan ohorean. Elizkizune bukatu ondorean etxe aldera abiatu ziren. Lagundu zituzten zarrak beren etxera eta agur maitekor bat egin ta ondoan, etxeratu ziren senar-emazte gazteak, biotzak bozkarioz beterik.

Eguberriak igaro ziren. Urte zar eta urte berri egun alaiak ere goan ziren. Negue pixkeka pixkeka bazoaien bere elur, orma, aize, euri eta kazkarabar erauntsiekin. Noizbait ere udaberria etorri zen, txorien kantu alaiakin.

Leblanc'en Bazkunak udaberrirako ainbertze lan berri bazituen egin bearrak. Len asitako bide ura akitu urren zuten eta orain Alpeseko mendietan bertze bide bat egin bearra zuten, et ari ziren tresna guziek prestatzen arat eramateko. Orai udaberrian emanen zioten asmenta eta udaran eginen zuten lan geiena. Ortarako bazituzten prestatuek 600 langiletaraño. Martxoa aurrera zoaien eta ofizinan egiñaletan ari ziren gauzak antolatzen. Lanak eta kontuek bear zituzten akitu bertze ilabetean sartu baño len. Bertze egunetan bezala, osaba-illobak lanean bururik goratu gabe ari ziren eta illobak zion:

—Ainbertze lanak nazkatzen nau. Leblanc ezta guri ematen dakunekin errakaratuko.

—Otoi, ixilik egon zaite. Eztuzu deus erran bearrik Leblancen kontra. Aski gizon onta eta esku-zabala da. Nik beñipein eztut batere arrankurik. Bañan aspaldi ontan ikusten dutanez, zuk gero ta gogo guttiago duzu laneko, eta geienetan logaleak egoten zara. Ezaun duzu, bai, berandu etxeratzen zarela gauetan... Beti zure yoko zikin orrekin. Noizbait ere galduko dituzu ontasun guziek eta lotsa ere. Yoko zikin ori gobernuak bear luke debekatu.

—Egia da ni yokalarie naizela, bañan suertez geienetan irabazten du eta ongi noaie. Gañera, ni enaiz legean kontra. Yokoa zil da.

—Berritsukeri guttiago eta lan geiago egin bear da. Alfertzen ari zara —erran zion osabak bekoki illunakin.

Orduentxe sartu ziren ofizinan aitzindariak.

—Egun on, jaunak! —agurtu zuten.

—Bai zuei ere —erantzun zioten.

—Izan gara lantegian eta datorren astean emango diogu akaballa gure bide orreri. Lan pizer zenbaitzuk bakarrik eginbearrak dire. Ilabetean azkenengo egunerako bear ditugu kontu guziek egin. Apiriliaren bian asiko gara makina eta bertze treznak Grenoblera igortzen. Gure kapataz eta langile oberenak ere yoanen dire eta oiekin batean erabaki dugu zu ere goan zaitezen —erran zion Franziseri—. Soldata iganen zaitugu pixka bat. lan neketsua ezta izanen, bañan an bearko dituzu sei ilabete mendian igaro, lanak irauten duten bizkitertian.

Franzisek etzuen deus erraten. Burue goratu gabe segitzen zuen bere idazlaneta. Leblanc, bere lanari yarraituz, etzen gauz oietan oartzten. Goizeko lana akitu zuten eta aitzindariak atera ziren etxe aldera. Oraindik osaba-illobak bazuten zerbait lan:

—Oartu naiz etzaizuel ongi goan Leblancek erabaki duena. Eta zergatik ez? —erran zuen osabak illobari.

—Sei ilabete oiek basamortuan igarotzea gaitzesten dut. Obe nuke emengo lan ok guziekin etxe au uzten banu.

—Zaude ixilik, arraio burugabea! Emen baño obeki etzara iñon egonen.

—Ezetz? Nik badakit non sartuko nitzeken.

—Ezpada zure gogokoa eman dazuten lana, erraiozu biar bearean Leblanc jaunari.

—Bai, erran bear diot, bat. Aspertu naiz oraintxen etxe ontan.

—Goazen bazkaltzera; ordua da —erran zuen osabak.

Franzisek artu zuen berrie bere emazteari eman zion. Mayiri etzitzaio aunizik gustatzen, bañan uzte zuen Franzisen baitan afera guzie.

Biamamonean, lotu ziren lanera beti bezala. Egun artan bildu ziren denak: iru aitzindariak. jean Pierr eta Franzis. Leblancek zion:

—Atzo atsaldean egon nitzen Claudet jaunakin eta berexi omen dute auziaren eguna: Apirilian 29'an egin bearra da. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

—Ba, noiz-naiz ordue da —erran zuen Pierrek.

Gero Chatonek erran zuen:

—Gaur atsaldean ekarriko dazkute bi traktore berri. oiek igorri bear ditugu aste untan Grenoblera. Biar berean yoanen dire ogei lagun. Leku ura bear da leenik antolatu. Langileen bizitokia, iturria eta bertze gauzak. Datorren astean yoanen gara Franzis eta ni.

Franzisek etsi etsien bear zuen aurpegia eman eta ausartu zen erratera:

—Barka zaidazue, bañan ez nindaiteke yoan. Zuen etxea uztea erabaki dut.

Denak arriturik gelditu ziren. Leblanc zutitu zen bere yarlekutik eta erran zion:

—Arritzen naiz, mutikoa. Zer gertatu zaizu? Ez al zara kontent emen irabazten duzunekin?

—Bai, yauna. Bañan sei ilabete oiek mendian igarotzea etzait bat ere goxo.

—Soldata ederra duzu ba. Eztuzu bertze leku batean bertze ainbertze irabaziko. Ezpaduzu gure etxean egon nai, goan zaite. Eztazut bi aldiz erranen. Badire idazlari aski onak, gure lagunartean sartuko lirekenak.

Etxemendi eta Chatonet ere arriturik zauden. Etzuten uste beren idazlaria olako gauzakin aterako zenik.

Jean Pierre berriz, lotsatua bezela zagon, bat ere itzik erran gabe. Gero Etxemendik galdegin zion Franziseri:

—Eta orai zer egin bear duzu?

—Fabrika batean sartzeko ustea dut.

—Ongi dago, ongi —erran zion Leblancek—. Suertea opa dizugu.

Franzis mintzatzen zen apal eta modu onean. Ortako zuen eskol ona eta etzuen nai aserre gelditu, eta onela zion:

—Nik eginen dut nere lana, ilabetea akitu artio nai baduzue, eta baita ere bertze idazlari berria arkitu arte.

—Ilabetea bete artio egoten aalz ara, gero kontu guziek garbituko ditugu eta goan zaite bakean. Datorren astean idazlari berria izanen dugu eta gure gogokoa.

Bazkaltzera goan zirenean, Jean Pierrek deitu zuen bere illoba eta erran zion:

—Azkenean egin duzu astakeri bat. Zu beti burugabea baizera eta ezpaituzu yokoan baizik pentsatzen... Ikusiko dugu gero zertan gelditzen zaran.

—Nik badakit zer egin. Mintzatu naiz beribil fabrika bateko nagusiakin eta bere etxean sartu bearra naiz Maiatzeko bigarren egunean.

—Bakantzak artu eta Suizara goateko asmoa dugu eldu den ilabetean, amabortz egun pasatzera, Ginebran bizi den Mayin izeba baten etxera. Bakantza ok aspaldian pentsatuak gintuen eta orain egin dezazkegu. Diru pizer batzuk ere irabaziak baititut yokoan, eta gastatu arte.

Eta burue mugituz alde batera eta bertzera, ezagun zuen Jean Pierrek etzuela bere gogokoa illobaren erabakia.

Franzisek erran zion Mayiri gertatu guzie, eta au emazteki gizajoa baizen, siñesten ziozan denak, geienak gezurrek baziren ere. Franzisek solas goxoakin emaztea liluratzan zuen, berak nai bezala.

—Zein ongi! —ziotsan Mayik—. Orai pasatuko ditugu amabortz egun Ginebran gure izeba Margareten etxean. Noiz yoanen gara, Franzis?

—Apirilaren zortzian goanen gara eta 14'rako eginen dugu itzulia. Ilabete guzia guretako dugu, Maiatza arte ezpainaiz lanean asiko lantegi berrian. Apirileko ilabetea iragan dezagun plazerki.

Senar-emazte gazteak alai ziren. Yosteta eta bizi ona maite zituzten.

Igaro ziren martxoko ilabetearen ondar egunak eta Franzisek egin zuen bere azken agurra Leblancen Bazkunari, kontu guziek xuxen eta ongi antolatu ta ondoan. Jean Pierrek etzuen onetsi bere illobaren erabakia; tristerik eta samur gelditu zen osaba zaarra.

## —XI—

Apirilen lenbiziko egunetik asi ziren bakantzeko bear zituzten yauntziek prestatzen, eta batez ere Peugeot txikiaren zirriken berritzen. Iritxi zen ilabetearen zortzia. Eguraldi ona zagon. Iguzkiek berotzen zuen. An emenka, landetan yendea ageri zen lanean. Euri ondo eder arekin ongi lotu ziren nekazariak beren lurrari egin aal guzian.

Gure «turistak», biotza alai eta ortzetan irria, abiatu ziren Suiza aldera, ango aize osasungarria artu naiean. Igaro zituzten bidean bi egun, gauz ederrak ikusiz, eta iritxi ziren Ginebrara. Lenago izebari bazoazile gaztigatu zioten, eta gazteak iritxi orduko izeba eken zai zagon.

Olakoetan gertatzen den bezala, musuak, irriak eta yostetak izan zituzten elkarren artean. Arrera maitekor bat egin zaben izebak.

Iri zoragarri artan plazenki pasatzen zituzten egunak, ango edertasunek eta bestak ikusiz.

Margaret eta Mayi etxetik ateratzen etzirenian Franzisek egiten zituenb ere ibillaldiak Ginebrako kasiko aldera. Iru edo laualdiz aritu zen yokoam eta denetan irabazi. Suerte aundiko gizona zen. Boltsa aski indarrean zauken eta ainbertze gauz erosi zituen oroitzapenetako. Goan bezperan, Margaret eta Mayi etxean zirelarik, Franzis agertu zitzairen uroski esku-muturreko erloju dirdiranta batekin.

—Agur, ene maiteak, —erran zaben sartu orduko bere besoa erakutsiz.

—O! Zer erloju ederra! Urrezkoa al da —erran zion Margaret.

—Bai, urrezkoa eta Longinez. Zuendako ere ekarri ditut bi edergail.

Zuretako Mayi, bertze erloju urrezko bat, eta izebandako urrezko «brazalet» au.

Bi emaztekiek luluraturik zeuden Franzisek ekarritako gauzekin. Biek ere muinkatu zuten pozaren pozez berendako zen gizon aipagarria.

Baiaramunean prest ziren etxeratzeko, ainbertze egun atsgeingarri pasatu ondoren izebaren ondoan. Azken agur bat andre maitagarri areri egin eta abiatu ziren bere txokora. Lenago erran zutenbezala, 15 egun pasatu zituzten, eta 24'rako etxean ziren.

## —XII—

Bertze egun pare bat igaro zuten deskantsu ederrean; bañan Franzisek bear zituen bere lan berriko gauzak antolatu, eta atera zen ango nagusiekin mintzatzera. Etxetik ateratzean erran zion bere emazteari:

—Banoaie fabrika ortara eta ez naiz bazkaltzera etorriko; bañan uste dut zortzietako etxeratuko naizela.

Mayi, beti bezala, bere etxeko gauzak ongi apaintzen ari zelarik, gelako mai ttipia mugitu zuen eta uste gabea kas, Franzisek mai artan utzi zuen erlojua lurrera. Ai! erran zuen Mayik. Artu zuen lurretik eta erlojua etzabillen. Dudarik gabe barnean zerbait autsi zitzaion. Denborik galdu gabe eta gertatu zitzaiona bere senarrak yakin ez zezan, eraman zuen erlojua Friedrich'engana.

—Egun on, yauna, —agur egin zuen.

—Bai zuri ere —erantzun zion Friedrich'ek.

—Ni Francisen emaztia naiz.

—Oh! Poztutzen naiz zu ezagutzea. Urte askotako.

—Badakarrat Franzisen erlojua, orai Ginebran erosi berria, eta zorigaitzez gelako mai ttipitil erori zait lurrera eta gelditu da. Otoi antlatu zaidazu gaur berean. Ez nuke nai berak yakitea autsi dutanik. Zortziek arte ezpaita etxera etorriko. Egiten aal bazinuke atsaldeko, eskertuko nazuke.

—Ikusiko dugu. Etzaitela estutu. Etorri zaitte zazpietan. Alegiñak egingo ditut.

—Esker mille. Atsalde arte.

—Agur. Gero arte.

Mayi atera zen eta etorri bezala «Metroa» artu ta goan zen bere etxera, merkatu plazan yanari batzuk erosi ondoren. Bizkitertian Friedrich'ek artu zuen erlojue antolatzeko asmoakin eta ideki zuen. Ixtanpat makinari begira egon zen eta lenbizien etzuen siñesten bere begiek ikusten zutena. Arrigarria! Franzisen erloju zar ura ber-bera zen.

—A, lapur zitala...! —zion bere baitan. Ementxen ziok. Erori aiz, Franzis.

Friedrich yaunak, itzeman bezala, deitu zuen telefonoz Claudet yauna.

—Etorri lenbailen. Nere eskuetan daukat erloju famatu ura.

—Egia ote da? Banoaie lasterka —erran zion Claudetek.

Aidian etorri ziren, errateko moduan, Claudet, Pontac-eta sartu ziren dendara. Eken zai Friedrich'ek erlojua eskuen zuen. Claudet erlojuari begira gelditu zen, eta erran zuen:

—Baña ori al da? Ez al zen ba, altzairuzkoa?

—Au ber-bera da bañan berritua. Urrezko kaja jarri diote, eta esfera eta orratzak ere berriak ditu.

—Nork ekarri dazu —galdegin zion Claudetek kezkatu.

—Zuk uste ez dezunak. Entzun ondo! Franzisen emazteak.

Komisarioa eta bere laguna mututuak gelditu ziren Friedrich'eri begira.

—Urde madarikatua! —erran zuen azkenean Claudetek kolera aundian—.

Franzis lapurre! Nork erran bear zuen? Nola egin dakun iruzur! Bañan arritzekoa da nola ekarri dazuten erloju ori.

—Bai. Bere emazteak etzuen zer jakingo. Franzisek utzi omen du erlojua etxean eta emazteari lurrerra erori, eta bere senarrak yakin etzezan erlojua autsi duela, ekarri dit nik konpondu dezadan gaur atsaldeko.

—Eta non berritu ote du erloju ori?

—Berak esan duenaz, Ginebran erosi omen du bere senarrak; bañan gizajoak ez daki zer iruzurra egin dion.

—Zer ordutan etorriko da erloju billa?

—Esan diot zazpietan etortzeko.

Claudet egon zen pixka bat ixilik eta erabaki zuen:

—Sei t'erdietan yoanen gara Franzisen etxera eta xuxenduko ditugu gauzak.

Eta bera etxean ote da?

—Ez, ez omen dago etxean, bañan zortziek aldera etorriko omen da.  
—Orain baditugu gauz batzuk eginbearrak, eta seiak aldera etorriko gara.  
Zuk lagunduko gaituzu lekukoa bear baitugu.  
—Bai, yauna, bai. Ondo dago.  
Ertzañak goan ziren beren eginkizunetara eta Friedrichek segitu zuen bere lanean. Seietan agertu ziren berriz bi ertzañak eta orduko Friedrich gertu zagon.  
—Goazen Franzisen etxera. Gure beribilean ixtanpatez iritxiko gara.  
Friedrichek eman zion erlojua Claudet jaunari eta, denda bere emazteen eta semeen eskuetan utzirik, abiatu zen bi ertzañekin Franzisen etxe aldera. Autoa bazter batean utzi ondoren, igen ziren bizitza ortara eta yo zuten atea.  
Mayik edeki zuen:  
—Atsalde on! Zer diozu? —agurtu zioten.  
—Ongi ta zuek —erantzun zuen Mayik arrituta, etorri berriei begira—. Bañan segidoan ezagutu zuen Friedrich. —Non zabilzate?  
—Emen eldu gara zu ikustera.  
Sartu ziren barnera iru gizonak eta exeri ziren gela nagusian.  
—Zer berri dakarrazue? —galdegin zuen Mayik.  
—Senarra ez al dago emen? —erran zion Claudetek.  
Ez. Gaur bazituen gauz batzuek egin bearrak eta kanpoan bazkaldu du. Gero etorriko da.  
Mayi bildurtzen asi zen. Bere baitan zagon berri txarren bat ote zen eman bear ziotena. Ortaz, bada, kezketan zagon. Gero galdegin zion Friedricheri:  
—Egin al dezu nere komisionea?  
—Eztet egin, ez —erantzun zion.  
—Onen gañean dugu ba, zerbait erran bearra —erran zuen Claudetek eta denbora berean atera zuen sakeletik erlojua. Erloju au lenagoko Franzisen zaar ura da. Orai Ginebran berritua. Au da ebatsi zuten ber-bera.  
Mayik oiubat egin zuen erraten zuela:  
—Etzazutela Jaungoikoaren izenean olakorik erran... Nondik atera duzue gezur ori? Erloju ori bertze batekin batean erosi zuen Ginebran nere senarrak. Eztu oraiñik bortz egun...  
Eta nigarrez asi zen.  
—Zorigaitzez, erran duguna egia da. Gaztigitu iozu senarrari telefonoz etorri dadiela segidoan.  
Mayik telefonia artu eta fabrikara deitu zuen eta suertez, an zagon senarra. Negar zotinka erran zion Franziseri segidoan etortzeko. Ordu laurden baten buruen an zen Franzis. Kezketan sartu zen, ezagutu baizuen bere emaztea nigarrez ari zela. Claudet, Pontac eta Friedrich an ikusi zitunean, arritu zen; bañan bereala agurtu zituen alaiki:  
—Ongi etorri nere etxera. Zer berri da?  
Claudetek zorrotz erantzun zion:  
—Agertu da zuri ebatsi zazuten erlojua. Emen duzu.  
Eta erakutsi zion. Franzis sor ta lor gelditu zen, gorri gorri eginda, zer erran etzakiela. Denbora berean mayi asi zen nigarrez.  
—Zein ongi berritu duzun erloju zaarra Ginebran egon zeratelarik! —erran zion Claudetek.  
—Bañan zer gertatu da emen? Nik deus eztakit.  
—Zer gertatu den? Zure emazteari erori zaio erlojua lurrera eta eramandu konpontzera. Zer gertatu da gero? Emen duzu lekukoa. Yaun onek erlojuen tapa ideki duenean, ezagutu du erloju zarra, lau milloiekin batean ebatsia. Non dituzu diruak? —erran zion Claudetek oiuka.  
Mayi gizajoari nagibe bat egin zitzaion eta lurrera erori. Franzisek laister goratu zuen Pontacen laguntzarekin eta goatzera eramandu zuten; bañan suertez, bereala esnatu zen.  
Franzis lapurra erori zen. Etzuen ukatzerik. Etsi etsian bearke zuen bere txarkeria aitortu. Ixilik ixtant-bat egon zen, eta erran zuen:  
—Nere burnikutxan ditut lau milloiak oso osoak. Eztitut gastatu. Nik yokoan suerte izan dut eta badut zerbait. Diru oiek eztut ukitzeko lanik izan. Zatozte.



Etxeko zoko batean bazuen burni-kutxa ttipi bat eta an zituen ebatsitako diruak. Pontacek artu ta paper lodi batean bildu zituen. Claudeten aginduz !Franzis ertzañen menpean gelditu zen. Friedrich eta Mayi bertze gelan zauden. Emazteki gaixoak izigarritzko disgustua artu zuen bere senarraren nardagarritzko ebaskoakin.

—Goazen komisarira.

Eta Claudeten aginduz atera ziren Mayi ez bertzeak. Komisarioak erran zion:

—Etzaitela izitu. Eztiogu lepoa kenduko zure senarrari.

Iritxi ziren komisarira. Friedrich ere goan zen, bear bai zuten lekuko.

Bizkitertian Mayi goan zen Jean Pierre eta izebari zorigaiztoko berri ura ematera.

Claudet jaunak erabaki zuen Leblanc eta bere Lagunartekoei gaztigatzia, denak entzun zezaten Franzisen aitopena.

Etzuten bada, aunitzik berandutu. An bildu ziren lagun guziek Claudeten aitzinean.

—Atsalde on, yauna —agur egin zuten.

—Bai zuei ere. Ongi etorri. Berri onak eta denborak berean txarrak. Nork erran bear zuen lapurre etxean zintutela?

Denak seriozko zauden, batez ere Jean Pierre. Nabari zuen aurpegian tristura aundi bat. Claudetek agindu zuen:

—Ekarri dezatela Franzis.

Iñork uste etzuen lapurre ekarri zuten denen aitzinera. Au lotsatua zagon, bururik altxatu gabe, lurrera begira. Jean Pierrek aren ondora goan eta ederrak erran zitien:

—Lotsa gabea! Lapur zikina! Laidogarria da egin gaituzune!

Denek exeri ziren eta Claudet asi zen galde-erantzunetan.

—Erran zazu onez onean egia garbia, gauzek gertatu ziren bezala.

—Bai yauna, bai —erran zuen apalkiro Franzisek.

Gaur artan asotsa nabaitu ginuenean beitienean, yautsi nitzen laisterka ta burni-kutxa edekie ikusi nuen eta an 500 franko berrikin zen larruzko boltsa bat eramanean zutela. Orain aitortu bear dut lau milloiak utzi nituela mai gañean atzenduta, dirukutxan sartu gabe. Gañera erlojue utzi nuen boltsan gañean, lenago kendu bainuen eskuek garbitzeko. Eta gero etsaian tentazioa. Ikusi nuenean lapurrek iges egin zutela, lau milloiak mai gañean utzirik, kartera erlojuekin batean artu ta nere abrigoen azpian altxatu nuen. Gero asi nitzen oiuke eta etorri ziren goitikoak. Telefonoen ariek nik ez nituen autsi. Ori bertzek egin zuten. Claudet jaunaren billa yoan nitzenean altxapean eramanean nuen kartera, eta nere etxean ezkutatu. Gero goan nitzen komisarira. Aitortu bear dut kartera ere nik bota nuela ugaldere. Nik egia erran dut. Sinetsi zaidazue.

—Ala uste dugu beñepein; bañan izanenean duzu merexi duzun zigorra. Eramanean zazue giltapera —agindu zuen.

Leblanc eta bertzeak iruzurti arenean aitopenaz bazirudien akort zirela. Paper batzuk xuxendu bitertian an egon ziren oraiñik ordu betean lau milloiak eskuratu artean. Gero denak tristerik abiatu ziren beren etxetara.

Bi egunen buruan egin zuten lenago aipatutako auzia eta an zuten Beltza eta Piztiaren txarkeria ikusi bearra. Ien erran zuten bezala, aitortu zuten berek ebatsi zutela 500 frankoak, ta azkenean aitortzeko lana izan zuten Mainkerra zanpatu zutela eta egun artako gertakizun guziak. Lau milloien gañean etzuten deus ikustekorik. Orduko afera garbitu zen. Gaizkile ok presondegian sartu zituzten eta an eman zabezten bear zuten kastigua.

Egunkariak zabaldu zuten alde guzietara berri ura eta Franzisen erretratoa agertu zen «Jounaletan». Zer lotsa eta zer naigabeak ekarri zuten zoritxarreko ebakos arrek! Laidogarri bai zinez Franzisek egin zuena.

Baitegi nagusira aldatu zuten juizioa egin bizkitertian. Iru aste igaro ziren eta Jean Pierre, Elizabet eta Mayik egin zioten ikustaldi bat. Claudet jaunak lagundu zituen presondegira.

Franzis aski umileta urrikalkizun arkitu zuten illunpe artan. Ordaindu bearko zuen egin zuen obena. Gero etxeratu ziren osaba-izeba Mayikin. Au berekin artu zuten Franzis giltzapetik atera arte.

Claudet yauna, beti bezala, bere ofizinara goan eta yarleku guri artan exeri

zen; eta puro bat erretzen zuela, onela zion:

Mundu onetan dirurik gabe  
yendea dabile oso larri,  
dirurik ez eta ezin erdietsi  
bizi-modua da negargarri;  
ongi bizi nai, lanik egin gabe,  
ori dute bai, kaltegarri,  
eta gero gertatzen oi dana:  
azkenean *Dirua Galgarri*.